



LESBIANAK: IKUSGAI ETA ESKUBIDEDUN”, POLITIKAN ERAGITEKO KANPAINA.

JARDUNALDIAK

LESBIANAK ETA POLITIKA, ELKARRIZKETA ETA HAUSNARKETAK LESBIANISMOAREN INGURUAN POLITIKA PUBLIKOETAN

(2016 eko azaroaren 29 eta 30 ean egindak)

TXOSTENA



AZAROAREN 29n

POLITIKA NORBERAREN IKUSPUNTU SUBJEKTIBOTIK, *Zer suposatzen du politikan aritzea lesbiana ikusgai izaten*

- **NATALIA GARDEAZABAL**, zinegotzia (EH-BILDU)
- **EUKENE ARANA**, parlamentaria (ELKARREKIN-PODEMOS)

Aurkepena

(Elena Olaortua, ALDARTE)

Ongi etorri eta arratsaleon guztioi. *Lesbiana ikusgai eta eskubidedunak* orain bi urte sortutako intzidentzia politikorako kanpaina bat da, *Lesbianak eta Politika* jardunaldi hauek heldu arte ALDARTEkideok lan luze et aberasgarri bat egin dugu. Labur bada ere, jardunaldiotara heldu arte zer egin dugun egin azalduko dizuet.

Hasteko, 2015 urtean alderdiei zuzentzeko moduko proposamenaren lehen zirriborroa egin genuen. Haren izena ponposo samarra zen: *Alderdi politikoei zuzendu beharreko proposamena; lesbianismoa agerikoa egingo duten neurri politikoak eta estrategiak beraien hauteskunde programetan sartzeko zeintzuk bide jorratuko dituzten; eta beraien egituretan emakume lesbienak baztertuak izan ez daitezen eta aukera berdinekin aritzeko aukera izan dezaten zeintzuk neurri hartuko dituzten.*

Xede horrekin hasi ginen lanean modu oso irekian. ALDARTEko emakume lesbianak hasi ginen lan honekin eta guk idatzi eta osatu genuen txostenaren lehen zirriborroa.

Gero, hortik Aurrera, Euskal Herriko LGBT talde guztiekin batzartu ginen eta hausnarketa eta eztabaida izan genuen haiekin zirriborro horren inguruan. Guztiek egindako ekarpenekin behin betiko txostena adostu genuen. Honako talde hauek bat egin zuten kanpainarekin: EHGAM, Gehitu, Guztiok, Errespetuz, Hegoak, Liga LGBT-UPV, Medeak,



Hortzadar eta Seaska. Horiek guztiak batzarrean izan ziren eta bat egin zuten txostenean bildutako eduki, xede eta asmoekin.

Behin betiko txostena adostu ostean (bai txostena bai kanpainako gainerako agiri guztiak ALDARTEn web gunean aurkituko dituzue) harremanetan jarri ginen alderdi politikoekin. Txostena guztiei igorri genien eta, ondoren, haiekin bildu ginen: PSE, EH Bildu, PP, Ezker Anitza, Ahal Dugu-Podemos eta EAJ. Txostenean bildutako proposamen guztien inguruan alderdion iritzia eta konpromisoak jaso genituen.

Azkenik, agiri batean jaso genituen alderdi guztiek bidalitako erantzunak. Horiek guztiak ere gure web gunean ikusi ahal izango dituzue. Ekimenaren bigarren fase batean, pentsatu genuen interesgarria izan zitekeela jardunaldi batzuk antolatzea jendeak aukera izan zezan txosten honi buruz alderdi guztiekin eztabaidatu, hitz egin eta parte hartzeko.

Horrexegatik gaude gaur hemen, orain bi urte abian jarritako kanpainaren bigarren faseari ekiteko. Josunek hartuko du hitza ondoren, gaiari buruzko xehetasun gehiago eman ditzan.

Sarrera eta hizlariaren aurkezpena

(Josune Ortiz, moderatzailea):

MODERATZAILEA: Oso gutxi dira oraindik agerikoak diren lesbianak, bereziki politikagintzan. Emakumeon artean badirudi eremu pribatuak eremu publikoak baino tarte askoz handiagoa hartzen duela eta, bereziki, emakumeon artean oso erreferente publiko gutxi ditugu. Baina feministok aspaldi esan genuen auzi pribatuak, auzi pertsonalak, politikoak ere badirena eta ezinbesteko mantra hori gurera ekartzea proposatu diegu gaurko gonbidatuei, bai Eukeneri baita Nataliari ere. Biak ala biak politikan ari diren emakume lesbianak dira eta euren bizitza pribatuaz, kontu pertsonalez eta politikaren subjektibotasunaz jardungo dugu beraiekaz.

Natalia Gardezabal Diez nire herrikoa da, Basaurikoa. Gogoan dut gainera ni oso gaztetxoa nintzela, bera orain irakasle moduan ari den institutuan ni ikasle nintzela, bera zela neure erreferente lesbiko bakanetakoa. Eta bakanetakoa esaten dut zuon artean, entzuleen artean, badelako beste bat, Maitena, institutuan ikasle zela bera ere nirekin batera, adin berekoak garelako. Bera ere beste erreferente politiko-lesbiko garrantzitsua izan zen niretzat. Artean nik oraindik ez nekien lesbiana nintzenik, egia osoa aitortu behar badut. Urteak pasata, Natalia eta biok lagun egin ginen, borroka



feministan bidaide, eta urte haietan bera emakume bategaz ezkondu zen, seme-alabak izan zituen, banatu ere egin zen eta politikagintzan sartu zen, beste hainbat kontuen artean. Gaur egun, gure herrian, Basaurin, EH Bilduko zinegotzia da eta hausnarketa honetatik abiatzen da gaurkoan.

Badira uste dunetak –usteak, erdiak erdi ustel- gure sexualitatea gune pribatura mugatu behar dugula, ezkutatu beharreko lotsa iturri eta aitortu ezineko pekatu mingotsa bailitzan. Lesbiana-feminista garenok, alta, gako pertsonal oro gako politikoak direla defenditzen dugu. Gure ustez, politikak goitik behera zeharkatzen ditu gure gorputzak, mundu heteropatriarkalari, arrazistari, berekoiari eta kapitalistari aurre egiteko borroka tresna diren gorputz hauek, alegia. Gure gorputza bada ere lanabes miresgarria beldurrari, lotsari eta zapalkuntzari aurre egin eta guztiak gainditzeko. Libre bizitzeko, bestela esanda. Arratsaldeon, Natalia.

NATALIA GARDEAZABAL: Arratsaldeon, bai.

MODERATZAILEA: Eukene Arana Varas Barakaldokoa da, Bilbon bizi den arren. Feminista da bera, lesbiana eta bikien ama. Izatez, eta lanbidean, oso emakume kurioso da, jakinmin handikoa eta erronkak izugarri maite dituen. Pentsatzen dut horiek nahikoa arrazoi badirela politikangintzan aritzeko. Publizitate teknikari bezala jardun zuen bizitzaren une batean, norabidea aldatu eta Hezkuntza mundurako aukera hartzea erabaki zuen arte. Berak dioen bezala, autodidakta da hainbat gauzetan eta arraina uretan bezala mugitu ohi da sare sozialetan. Ziberbullying arazoa sakon aztertu du, baina emakume hau ezaguna egin bazen, ETB2ko eta hainbat irratiko tertuliatan parte hartu zuelako izan zen. Gaur egun Elkarrekin-Podemos alderdiko legebiltzarkidea da Gasteizen, alderdiko Herritarren Batzordeko kidea eta Podemos-Euskadiko Berdintasun Batzordeko burua ere bai. Hausnarketarako gai bat, Eukene: beharrezkoa dugu jendarte justuago eta berdintzaileago bat, politikan jarduteko beste modu bat, non emakumeok zeregin eraginkorragoa eta zuzendaritzakoa izango dugun. Gure esku dago aldaketa soziala eta politikoa eta horretarako egiazko berdintasunaren aldeko eta hezkuntza bateratzaile eta berdintzailearen aldeko lan bikaina egin beharrean gaude. Arratsaldeon, Eukene.

EUKENE ARANA: Arratsaldeon zuri ere.



SOLASALDIA

Lehen galdera:

MODERATZAILEA: Zuok biok pasioa jartzen duzue egiten duzuen guztian. Horretan berdin samarrak zarete. Pentsatzen dut, besteak beste, horregatik sartu zinatela zuek biak politikagintzan. Zuontzako lehen galdera, hauxe duzue: Zein unetan erabaki zenuten, eta zergatik, politikan sartzea? Politikan, non pasioak horren beharrezkoak izanik zuon kontrako aitzakia ere bihur daitezkeen.

NATALIA GARDEAZABAL: Nire kasuan kontrakoa da. Okerrago litzateke niretzat pasiorik ez jartzea egiten dudan guztian. Nik ezin dut politikagintza ulertu, bizitza ere ez, pasiorik gabe. Beti iruditu zaizkit lar susmagarriak zera publikoa kudeatzen dabiltzanak, ustez gaitzik edo minik egiten ez duten jarrera hartua dutela, objetibotasunetik, beti hizkera baikorra ezpainetan dutela, hori berez ona balitz bezala, ustez unibertsalak direlakoan, neutroak, neutraltasuna, politikan, gezurra denean, objetibotasuna ere bai, eta nire ustez, gero eta argiago dagoenean persona neutro eta objetivo baten atzean beti dagoela BBVA bat. Beti. Alegia, gizon zuri, burges, adineko eta heterosexuala. Araua beraiek egina da, beraientzako. Hargatik, halakoak entzuten ditudanean, susmoak errailetan sartzen zaizkit. Nire uste apalean, bai politikan, bai bizitzan, norberak dagoen tokitik egiten ditu ekarpenak. Zintzo jokatzuz, zeure burua agerian uzten duzu. Nik neuk, esaterako, feminista eta lesbiana aitortzen dut neure burua.

Gure aitite zena gerra zibilean borrokatu zuen Rosa Luxemburgo izeneko bataloian. Zoratu eta politika instituzionalean sartzeko hautua egiteak badu loturarik, beharbada, gure aitie hura errepublikarra izatearekin, eta gerran parte hartu izanarekin, non eta Rosa Luxemburgo izeneko batailoan. Gogoan dut Rosa Luxemburgoren esaldi esanguratsuenetako bat, nere ustez hura delako politikan gabiltzan eta jendarteak aldatu nahi dugun emakumeon *leit motiv* eta arrazoia: Mundu berri baten alde borrokatzen dugu, non sozialki danak berdinak izango garen, humanoki ezberdinak eta guztiz libreak. Pitsuzko hiru xede horiek lortu ezinean gabiltza oraindik. Oraindik gehiago, horren zurruna bilakatu zaigun mundu honetan, ezinbesteko hiru xede dira horiek politikagintzan aritzeko.

EUKENE ARANA: Ni neu konformagaitza izan naiz, betidanik. Horrek eraman izan nau bizitzan autodidakta izan eta modu horretara gauzak lortzera. Ikasteko tenorean nintzela, ezin izan nuen ikasi etxean ezin zizkidatelako ikasketak ordaindu. Etxetik oso gazte nintzela alde egin nuen, 21 urtekin, eta egokitu zitzaizkidan baldintzak onartu ez eta denborarekin eta ahalegin handiz aurrera egitea lortu nuen arren, Eroskin publizitate



teknikari bezala bizimodu eroso lortua nuela, erabaki nuen ezin nuela horrela segi. Eroso bizi nintzen, agian, baina marrazoez inguratuta. Boterea gizonen esku zegoen eta nik neure txoko propioa erdieste lortu nuen, bai, haiekin guztiekin liskar bizian ibili eta gero, haien antzera jokatuz eta neurri batean haien modukoa izanik. Ezin izan nuen gehiago eta guztia uztea erabaki nuen. Ume biak jaio berriak ziren eta urte batez haiek zaintzen ibili nintzen. Halako batean, horrenbesteko injustiziaz betetako mundu honetan nengoela, adiskide batek zera esan zidan:

- *Telebistan ez dugu aurkitzen publikoki hitz egiteko prest egongo den lesbianik.*
- *Ni banaoa, esan nion.*

Egia zen, inork ez gintuen telebistan ordezkatzeko eta hara joan nintzen. Bizitza halakoxea izan dut. Une horretan Magisteritza ikasketak egitea okurritu zitzaidan. Hezkuntza munduan lan egin nahi nuen, bertan gauzak xumeki bada ere, aldatzeko aukera izango nuelako. Azken batean, politika egiteko hamaika modu dagoela pentsatu izan dut beti. Ez dira politikoak alderdietan, Legebiltzarrean edo Udaletan dabilzanak bakarrik. Bizitzan modu asko dago politika egiteko eta ni beti mugitu izan naiz justuak iruditzen zitzaizkidan xedeen atzetik. Jakina, gauza batek bestea dakar.

Guraso homoparentala izanagatik ez dut arazo handirik izan bizitzan, baina bai aurkitu izan naiz bidegabeak iruditu izan zaizkit hainbat gauzekin: paper ofizialetan aita ezabatu ama jartzeko; eskolan irakasle berriren bat zegoen bakoitzean neu ere Martin eta Noraren amatxu banaizela argitzera joan behar izatea... Hainbat gauza konpondu beharreko ikusten nituen. Horiek guztiak zelan konpondu aztertzen hasi nintzen eta apurka-apurka bizimodua eraldatzen lagundu zidaten lagun dezente ezagutzen joan nintzen. Halako batean Podemos ezagutu nuen, nire pentsamolde bereko jendea zegoen bertan eta gauetik egunera, askorik pentsatu barik, niri gauzak horrela gertatzen zaizkit eta, alderdiko Herritarren Batzorderako primarietan parte hartzera gonbidatu ninduten. Pasioak eta izate konformaezin horrek, ezustean, Legebiltzarrera eraman ninduen. Hor nago, jakinaren gainean bertan egonik gauza asko aldatu daitezkeela eta naizena izanik beti: emakume, feminista eta lesbiana. Sarritan zaila gertatzen bada ere, pentsatzen dut hor barruan badirela aukerak, irmotasunez jardunez gero, gauzak aldatzeko. Azken batean, zerorrek eragiten dituzu aldaketak.



Bigarren galdera

MODERATZAILEA: Politika instituzionalean egoteak –eta horrela deituko diogu bestelako politika egiten urteak daramatzagu-eta bertan gauden gehientsuenak-zertan baldintzatu du zuon bizitza pertsonala? Bizitza pertsonalean, politikoa ere baden horretan.

NATALIA GARDEAZABAL: Neure kasuan ez dut hitz egingo lanbide hirukoitzaz, laukoitzaz baizik. Zinegotzia naiz herrian, baina ez nago liberatuta; institutuan jarraitzen dut irakasle, ama ere banaiz, bananduta nago... zorionez badut laguntza sare bat eta emazte ohiarekin ondo baino hobeto moldatzen naiz eta hori guztia oso interesgarria bada gaurko eta biharko eztabaidarako. Alegia, zelan egin behar dugun ditugun ardura horiek guztiak tajuz kudeatzeko. Ardura horiek ere politikoak dira. Gehiago esango nuke, kudeaketa hori erdiesten lortzea da politikagintzara bultzatu ninduen arrazoietakoa bat, den-dena hor sartzan delako, emakumeon bizimoduan.

Ezin dut ahaztu, bestalde, Basauriko zinegotzi bezala sartu behar ditudan ordu andanak. 40.000 biztaleko herria da eta, sinetsidazue Errolda, Igiezinen Gaineko Zerga eta udal zergen gaineko hitzaldi batetik nator orain. Kostata nabil horretan, gai horiek astunegiak ez ezik, aspergarriak ere egiten zaizkidalako. Dokumentazio ugari irakurri behar izaten dut ikasteko. Bada bitxia, baina ohartu naiz gai horietan daukagula guk arazorik handiena muturra sartzeko. Udalbatza dagoenean, esaterako, aurrekontuen gaineko eztabaidan gaudela, edo udal araudien gainean, mutil bi daude horretaz guztiaz arduratzeko. Hori bai, feminismoaz, martxoaren 8az edo antzeko gaiez, kultura esaterako, jardun behar dugunean, guztiek nigan jartzen dute arreta. Hainbatetan planto egiten diet. Egia da halakoak usu gertatzen direla politikan: Hezkuntza eta Gizarte Gaiak emakumeontzat, Ogasuna eta Zergak gizonentzat.

Lanbide laukoitzaren azken hanka militantzia da, eta ni neu behinik behin ez nago prest hori bazterrean uzteko. Kide feminista eta lesbianekin ditudan konpromisoak eutsi nahi diet, batez ere. Egia da une honetan ez ditudala horretarako garai batean nituen orduak, baina horrek asetzen nau batez ere, horrek pozten nau benetan. Poza gutxi aurki daiteke Udalgintzan. Gogorra da gero zinegotzi lana, astuna. Oso lan eremu arrotza zaigu emakumeoi eta horregatik, hain zuzen, da horren beharrezko gu bertan egotea. Zenbat eta emakume gehiago, feminista gehiago, erakundeetan, ordun eta hobeto.

Gogoan dut nola orain 15 bat urte, ezkontza homosexualaren gaian sartutan geunden buru belarri. ALDARTEko kideak ere hortan zebiltzan. Alde edo kontra, bizi-bizia zen eztabaida. Niri barru-barruraino sartu zitzaidan eztabaida, ordurako haurdun geratzeko



erabakia hartuta baineukan. Neska-lagunak eta biok familia osatu nahi genuen. Artean Zapatero Legea onartu barik zegoen eta oso latza zen bizi genuen egoera. Gero bai, ezkondu ginen. Halakoetan, zinez, ohartzen zara zein beharrezkoa den eskubide zibilen aldeko borroka. Garai hartan lesbianok uste izan genuen normaltasun horretara heltzea, berez, iraultzailea izan zitekeela. Neronek egin nezakeen ekarpenik iraultzaileena horixe zela pentsatzen nuen, ahalik eta normalena izatea, alegia. Oso normala, nire bikiekin, ezkondu... tira, txantxetan ere esaten dut. Garai hartakoak gogoan, hobe txantxetan ibiltzea. Benetan pentsatzen nuen normala izanik muturreko zerbait egiten ari nintzela. Orain berriz, 15 urte beranduago, argi daukat normaltasuna dela suntsitu beharrezkoa. Nik normaltasun hori suntsitzeko bideak, moduak eta moldeak asmatu nahi ditut. Zergatik? Beraien sarean harrapatu gaituztelako. Hizketan entzuten ditut eta nazka ematen dit, orain 15 urte nik esaten nituen gauzak haien ahotan entzuteak. Argi daukat LGBTI eskubideen gaineko eztabaida birplanteatzeko daukagun premia. Nik neuk behintzat horren gaineko gogoeta sakona egin nahi dut.

EUKENE ARANA: Pozarren nago. Badira hogeitaz urte baino gehiago Natalia ezagutzen dudana eta urte hauetan guztietan ez da batere aldatu. Aspaldi ez geunden elkarrekin eta beti bezala dabil, aldarri bete-betean. Esaten zenuenaren harira, egia da nik ere hainbat gauza birpentsatzeko premia ikusten dudana. Txantxetan bada ere, lagunek esan ohi didate ni heteroaraututa nagoela, ezkondu egin naizelako, premiak hartaratuta ezkondu nintzen arren. Ni, esaterako, ezkondu nintzen nire seme-alabak ez nituelako adoptatu nahi. ALDARTEko lagunak bitartez egin nuen guztia (Elena ALDARTEko abokatuari esker). Haien lagundu ziguten prozedurarekin eta halabeharrez ezkondu egin ginen. Ez zitzaidan bidezkoa iruditzen nik, ama ez-biologikoa nintzelako, nire seme-alabak adoptatu behar izatea. Horregatik egin nuen bestela inoiz egingo ez nukeena, ezkondu. Ezkontzaren kontra nongoen, eta nago, baina... behartuta sentitu nintzen.

Bada bidegabekeria gureak diren umeak legez gure egiteko ezkondu behar izatea. Batzutan pentsatzen dut gu kontropean izateko egiten dutela. Zerrendan sartzen gaituzte heterosexuak ez garen familia guztiak, badaezpda ere. Hori da daukaten modu bakarra zenbat garen, zenbat familia dagoen sexu bereko bikoteek osatuta eta zeintzuk baldintzatan benetan jakiteko. Nik ere pozarren hartu nuen garaipenaren bandera legea onartu zenean, seme-alabak nereak zirela aitortzea lortu nuenean adopziorik egin gabe, eta maite nuen emakumearekin ezkondu nintzenean. Emazte hitza erabili ohi dut aldarrikapen modura, oraindik orain beharrezkoa delako ageriko egitea zein den gu biok daukagun harremana. Inoiz nire emaztea aipatzen dudanean, muturra okertzen didate eta esaten:

- *Emaztea?*



Edo euskaltegian gaia atera eta oker nabilelakoan esandakoa zuzentzen ahalegintzen direnean:

- *Ez, ez, ez nabil oker.*
- *Ez, Eukene, ez...*

Eta nik,

- *Bai, bai, neure emaztea da.*

Barregarria dirudi horrela ibiltzeak, baina benetan sinetsita nago oraindik badugula premia gure burua eta harremanak agerian jartzeko. Inoiz ez ditut etiketak maite izan, baina tortilera naizela aldarrikatzen dudan moduan, lesbiana naizela, emakume batekin ezkondu nintzela aldarrikatu nahi dut eta baita bera nire emaztea dela ere.

Gaurko gaiari berriro lotuaz, logistika eta eskuhartze polikoa, ni politikagintzan sartzea erabaki nuen ezinbestekoa ikusten nuelako gu, emakumeok, gizonentzako sortua eta eraikita zegoen mundu horretan sartzeko premia. Egia da aspaldi utzi zietela emakume gutxi batzuei politikan sartzen, mundu ilun eta maskulino horretan, zeinean ordutegiak arrarenak diren, guztiz heterosexualak. Zergatik esaten dut hori? Gaueko hamarretan amaitzen dutelako, etxean umeak zain dituztela ahaztuta. Ni hor sartu nintzen horiek guztiak hankaz gora jartzeko: nik etxeokak zaindu nahi ditut, seme-alabek ikusi dezaten eskolara joaten naizela haien bila, etxeok lanekin lagutzen diedala. Seme-alabek ikusi dezatela nire emazteak ez duela zaintzaren ardura osoa bere gain hartzen, hark ere bere bizitza baduelako eta bizitzen segitu behar duelako. Baldintza hori jarri nien Podemosekoei ardurak proposatu zizkidatenean. Egia da hainbatetan zaila izaten dela eta emaztea saiatzen dela Legebiltzarrean ditudan arduren arabera laguntzen, baina ahal dugun neurrian nik ere aurre egiten diet etxeok lanei. Lautan Gasteizen banago eta umeak lau eta erdietan ateratzen badira eskolatik, ziztu batean ateratzen naiz haien bila joateko. Uste dut horrek baduela garrantziarik, denbora feminismotik eta lesbianismotik kudeatzea, biak ala biak bateginik baitatoz, banatu ezinak diren neurrian. Azken batean zera lortu nahi dugu, alegia, gizonen eremuak gureak egitea gure baldintzen eta bizitza ulertzeko moduen arabera.

NATALIA GARDEAZABAL: Eukenek aipatu du zein zurruna den erakunde publikotako jarduna. Borroka feministan hazi garenontzat, bejondeigula! Feministalde erakundean ibili izan naizenean, edo Sare Lesbianistan, edo Bizkaiko Emakumeen Asanbladan, hura zen hura patxada. Egia da eztabaida biziak izan ditugula eta inoiz gure artean haserretu izan garela, jakina, baina barrutik bizi izan ez baduzue ezingo duzue ulertu zer den Udalbatzan egotea alderdien arteko liskarren erdian. Kodigoak, manerak eta hizkerak



oso bestelakoak dira hor. Ohitu bitartean oso zaila egiten zaigu ni bezalakoei. Nik oso gaizki pasatu izan dut, batez ere ohartu naizenean ez umoreak ez ironiak ez dutela lekurik halako toki ponposotan. Feminismoan, esaterako, ez daukagu zerotik hasi beharrik elkartzen garen bakoitzean. Gure artean mamituak ditugu hainbat kode, hizkera, keinu, manerak eta baita begiradak ere, elkarren arteko begiruneaz ikasiak izan direnak. Halakorik ez dago politika instituzionalean.

EUKENE ARANA: Hala da, bai, baita korridoreetan egiten den zeharkako politika jardueran ere. Beharbada gehiago gertatzen da hori Legebiltzarrean udaletan baino.

Aitortzen dizuet zerbaitek utzi banau txundituta izan dela bost orduko batzarrak egiteak. Esan nahi dut, ez da atsedetik hartzen amaitu bitartean, komunera joateko ere ez. Eta entzutea jende batek bezperatik ura edateari utzi diola batzarra bitartean komunera ez joateko! Ezin dut halakorik onartu. Anekdotak izango da, seguruen, baina bada esanguratsua. Bost ordu esan dut, baina hori arratsalde izaten da, goizean beste lau ordu luze sartu eta gero. Eta ordu bakarra izaten da laster batean bazkaltzeko. Bata entzuten duzu, beste hau ere bai, beste hura ere, noski, zuri bi ordu barru egokituko zaizu hitza hartzea, baina ezin zara aulkitik mugitu. Komunarako bidea hartzen baduzu, zureak egin du. Guztien begiek kritika ederra egingo dizute eta une horretan hizketan ari denak muturra okertu eta begiratuko zaitu esanez bezala, *nora zoaz baina?* Eta zuk ezer esan gabe erantzun, *neu al naiz hemen pisolari den bakarra?*

Ordutegi horiek, gune horiek, bizimodu horiek gizonarenak dira. Haietzako primeran dago hori, horrela berandu helduko baitira etxera umeak lotan daudenean. Beraientzako primeran. Haien ikuspegiaren arabera, gizonak ordezkatzeko du politika, botera eta enparauak, eta beraien emakumeek, emazteek edo bikotelagunek berriz, etxeko lanak eta umeen zaintza. Eta berdin dio emakumeak etxetik kanpo ere lan egiten badu, harentzat izango dira gero etxeko lanen ardura guztiak. Emakume bati entzutea esaten ez dihoala komunera, edo ez duela urik edaten komunera ez joateko, negargura eragiten dit niri. Horregatik diot gure kide gizonetakoak oso jatorrak izango direla, noizbehinka irribar xume bat eskainiko digutela, eta hala ere egungo politika eremu arrotza izango dela beti emakumeontzat.

Hirugarren galdera:

MODERATZAILEA: Eta bereziki lesbianak zaretenok, nabaritu al duzue nolabaiteko bereizketarik alderdi barruan gainontzeko emakume ustez ez lesbianoek bizi dutenarekin alderatuta?



EUKENE ARANA: Beti pentsatu izan dut guri garden izatea tokatu zaigula. Edozein tokitan gaudela, ikasi dugu pentsatzen aurrean ditugun guztiak nahita nahi ez heterosexualak direla, ezkontuta egongo direla, edo ez... alegia, sozialki oso hedatuta dago uste ustel hori. Ni, bizitzan, ahal dudan guztietan oso argia naiz. Betidanik, gainera. Eroskin nengoenean ere, eta lanak hartaratuta batetik bestera joan behar izaten nuenean, nik esaten nienean, ez, neskalaguna dut, esaten zidaten:

- *Adarra jotzen ari haiz.*

Eta benetan pentsatzen zuten adarra jotzen ari nintzaiela, ez nuelako beraiekin afaldu nahi.

- *Ez duk hori. Mutil-lagunik ba ote nian galdetu didak eta egia erantzun diat, neska-laguna diatela.*

Badirudi behartuta gaudela garden jokatzeko. Umeak izan genituenean ere, oso argi izan genuen etxean aurre hartu behar geniola aurreiritziei. Nik badakit seme-alabari bizitza erraztu nahi badiet, etxean entzun beharko dutela, naturaltasun osoz esanda gainera, zer dagoen, gero eskolan galdera etorriko denean zer erantzun jakin dezaten:

- *Eta zuon aita?*

Hargatik, esaterako, medikura joaten ginenean nik argi hitz egiten nuen:

- *Gaur ni etorri naiz beste amak ezin izan duelako.*

Garden jokatzeko erabaki dut pentsatu izan dudalako errazagoa zela gu guztiontzat. Eta niri behizat gauzak asko erraztu dizkit. Izango da, beharbada, zorionez beti mugitu izan naizelako haintzat hartu nauten tokietan, bai lantokian eta baita etxean ere; bai alderdian eta baita bizitzan ere. Beti izan naiz oso gardena.

Telebistan izan nintzen lehenengo aldi hartan familia homoparentalen errealitatez hitz egiteko izan zen, Paloma Zorrilla kazetariaren programan. Hark mindu ninduen gure familia esperimendu bat zela esan zidanean. La Sexta kateko Zapping programan ere atera nintzen bota nion erantzunarekin: *Zu bai zarela zu esperimendu ederra, XXI. mendeko gorputza eta XV. eneko pentsamoldea*. Lagun batek telefonoz deitu ninduen Kanarietatik esanez:

- *Telebistan ikusi zaitut!*

Zur eta lur utzi ninduen. Nola zen posible hark Kanarietan ikustea ni ETBko saio batean banengoen. Beti izan naiz oso gardena. Nire izateko modua da, besterik gabe.



MODERATZAILEA: Ez duzu uste horrela jokatzuz politika egiten zabiltzala?

EUKENE ARANA: Jakina banabilena! Hargatik diot bada, bizitza bera dela politika. Ni beti izan naizenez konformagaitza, eta hala izaten segitzen dudanez, banekien portaera hori politikoa zela, erabat. Askotan, nagoen tokiaren arabera, ez dut *emazte* hitza erabiltzen, baina dakidanean hitzak berak harrabotsa piztuko duela, azpimarratu egiten dut. Eta segun eta norekin nagoen, galdetzen badit: *baina zu, lesbiana zara ala?*

- *Ez, ni tortilera naiz-* erantzun ohi diot.

Eskemak apurtzeko modua da hori. Pasadizo ugari dauzkat aipatzeko. Baita alderdiaren barruan ere. Ezkerrekoak izango dira baina, ezker guztietan gertatzen den moduan, gurean ere alproja ugari dago. Behin hitzaldi bat eman nien alderdikideei familia homoparentalak, lesbianismoa eta enparauen inguruan. Nik uste izan nuen argi geratu zela lehen pertsonan hitz egin nuela baina, handik aste betera alderdikide batek gizonezko batekin ikusi ninduela eta, zera galdetu zidan:

- *Senarra al zenuen?*

Txundituta utzi ninduen. Zer izan zen gizon hark entzun ez zuena, edo entzun nahi izan ez zuena? Jende asko dago zuk oso argi hitz egin arren eta haien aurrean barruak hustu arren, ezer ulertuko ez duena, ez duelako ezer ulertu nahi. Jende asko dago haien aurrean karteltzar batekin jarri arren zu zeu lesbiana zarena esanez, ez duena ezer ikusiko.

NATALIA GARDEAZABAL: Pasadizoekin hasi garela, nik ere badut bat edo beste kontatzeko. Eta kontutan izanik pasadizoak oso argigarriak izaten direla errealitatea ulertzeko, hona hemen nireak. Eukenek aipatu duen guztia politika instituzionalean gertatzen da, eta baita gu guztion lanbideetan ere. Ni Hezkuntzan nabil eta badirudi hor aukera handiagoa daukagula gu geu izateko. Baina tira, ez da beti hala izaten. Basaurin jende guztiak ezagutzen nau eta institutuan adin batetik gorakoek ere ondo dakite denek nirekin zer. Baina ikastetxeko gaztetxoek, 12 urte dituztenek, ez naute ezagutzen. Behin, halako batean, mukitsu horiekin lanean nengoela baten hitzak entzun nituen esanez, gutxi gorabehera, lesbiana danak oso arraroak zirela. Nire ondora deitu eta artez galdetu nion:

- *Ni ere oso arrarotzat naukazu, ala?*

Mutikoa zurbil-zurbil geratu zitzaidan, non sartu ez zekiela, eta lotsa barik bota zidan: *mmmm... ez. Zer ba, lesbiana zara, ala?* Eta nik erantzun:



- *Zuk zer uste duzu?*

Zurumurrak gailendu ziren ikasgelan. Halako batean danak isildu eta batek esan zuen:

- *Ezetz ba, senarra badu eta!*

Irailaz geroztik nenbilen haiekin eta galdetu nion: *Zergatik uste duzu nik senarra dudana?*

- *Gure adineko seme bi zenitula esan zenigulako...*

13 urteko mutiko batek berehala egingo du irakurketa: *Seme bi ditu ergo, senarra ere badu.*

- *Close the book-* esan nien, ingelesa irakaslea naiz eta-, *orain jakingo duzue zuek ona zer den.*

Eta hor hasi nintzaien, ea zer esan nahi du ama izateak, senarra edukitzeak eta horiek guztiek? Jakinaren gainean nengoen une hartan sexualitatearen gaineko tailer zoragarri horietako bat egin berri zutela eta hori baliatuz, galdetu nien: *Zer ikasi duzue sexualitateari buruzko tailerrean?* Adarra jotzen hasi nintzaien. Adi-adi neuzkan guztiak. Zeukaten ardurarik handiena ni lesbiana nintzen edo ez jakitea zen. Apustuak eta guzti egin zituzten. Neska zoragarri batek hala bota zuen: *Ene bada! Hiru lesbiana ezagutuko ditut!* Galdetu nion nik, *baina zeintzuk dira bada beste biak?*

- *Dulceida.*- Dulceida nor den badakizue? Ezkondu berri den youtuber ospetsu bat.

Auskalo nor zen bigarrena, baina neu izan nintzen neska harek ezagututako hirugarren lesbiana. Azkenean onartu nien lesbiana nintzena. Hura poza ikasgelan: bata apustua irabazi zuelako, bestea jada hiru lesbiana ezagutzen zituelako eta hirugarrena, berriz, lehenengo emakume lesbiana ezagutu zuelako.

MODERATZAILEA: Itxuraz dibertigarriagoa da Hezkuntza mundua politikagintza baino, ezta?

NATALIA GARDEAZABAL: Dudarik ez horretan. Nik pasioa aipatzen nuenean, horretaz ari nintzen. Politika gero etorri den kontua izan da. Eta arduragatik etorri da, beharrezkoa zelako politikagintzan ere emakume gehiago, emakume lesbiana gehiago egotea, agerian behintzat. Baina nik maite, hezkuntza maite dut.



Laugarren galdera:

MODERATZAILEA: Zuen alderdian ezagutzen al duzue emakume lesbiana gehiagorik?

NATALIA GARDEAZABAL: Pentsatzen badugu lesbiana izatea beste emakume batekin txortan egitea dela, ba al du horrek garrantziarik politikagintzan? Nire aburuz ez dauka garrantziarik nor norekin oheratzen den politika egiteko orduan. Baina politikan, eta politika publikoa egiteko, feminismoak bai arduratzen nau. Emakume naizen aldetik nahiago dut jakitea zein den nire tokia eremu publikoan. Nik beti galdetzen diot neure buruari: Zergatik Marotori ez zaio batere kostatu gay dela aitortzea? Edo, zergatik Trump presidenteak kanpainan izan zuen laguntzailerik hurkoena, pertsona nazkagarria, arrazista, faxista, Paypal konpainiaren sortzailea, alegia, multiaberatsa eta ageri-agerian gay dena, horren ozkenki aldarrikatzen du gay dela errepublikarren batzarrean? Eta hala gertatu da, kontraesankorra dirudien arren. Edo beste hura, Milo Yannopoulos, *Alt Right* mugimenduko astapotro handi hura. Eskuma Berritzailea du izena mugimenduak baina egiazko faxistak dira, 30. hamarkadako falangista haien oinordekoak. *Alt* izena dute, baina ez dute ezer berritzen. Ni izututa naukate haien pentsamoldeek. Eta hala eta guztiz ere, jende honek ez dauka arazorik ezkontza homosexualak haintzat hartzeko. Horrek asaldatu egiten nau, batez ere gaineratzen dutenean feminismoa minbizia dela jendartearentzat. Hitzez hitz: *feminismoa minbizia da, baina ezkontza homosexualarekin ez daukagu arazorik batere.*

EUKENE ARANA: Gizon diren aldetik errazago daukate. Gay direnek errazago daukate edozertarako. Azken batean gizonak diren aldetik egoera pribilegiatua bizi dute, guk emakumeok bizi ez duguna. Eta jakina, botere egituretan gizon bezala dauden neurrian, askoz errazagoa daukate beraien sexualitatean beren burua zuritzeko. Gu emakume jaio ginen eta, gainera, lesbianak gara. Ni ez naiz gaez askorik ibiltzen gaur egun, baina garai batean bai ibiltzen nintzen eta gogoan dut liskar bizian sartzen ginela lesbianok gure txokoak lortzeko, baita giroko tokietan ere, ustez guretzako sortuak ziren tabernetan. Dirua gizonen poltsikoetan egon da beti. Lesbianok berriz, lesbianak izateaz aparte emakume ginen eta, hortaz, eskasagoa zen gure diru ahalmena. Gizonak beti izan dituzte gauzak errazago, nahiz eta onartu beharko dugun familia osatzeko orduan zailtasunak haientzat izan direna. Pederastia auziak izan direla eta, egia da dudan jarri izan dela gay gizonen aitatasun gaitasuna. Baina egia da baita ere, politikan dabiltzan gizonentzat errazagoa izan dela hor egotea. Gay gizonentzat ere bai. Euskadin bat baino gehiago ezagutzen dugu, eta ez bakarrik ezkerreko alderdian. Errazagoa da, askoz errazagoa gainera, politikan gizon homosexualak ezagutzea emakumezkoak baino.



Bosgarren galdera:

MODERATZAILEA: Esaten ari zinatenaren harira, gizon homosexualek alderdietan agerian jarduteko errazago daukatu. Guk, gaurkoan, ikusgarritasuna azertu eta horretaz hitz egin nahi genuen. Horretarako, hain zuzen, antolatu ditugu jardunaldiok. Alderdietan orain arte zer gertatu den kontutan hartuta, argi dago emakume lesbianek arazo oso larriak dituztela agerian jarduteko, gay gizonek ez dituztenak. Jakin ondo dakigu gu toki guztietan gaudena, nahiz eta eremu pribatuan errazago aurkitzen diren lesbianak publikoan baino. Eremu publiko eta politikoan gehiago sakonduz, zuon alderdi barruan zer suposatu dizue zuoi bioi emakume lesbiana bezala ageri-agerian agertzeak? Zuon gizonezko kide homosexualek baino zailagoa izan duzue?

EUKENE ARANA: Nire kasuan, beti agerian ibili izan naizenez nire sexualitateari dagokionean, nire lesbianismoaz, ez dut arazorik izan. Batere ez gainera. Egia da, eta hori horrela dela onartu behar dut, zailagoa dela emakumeontzat pausoa eman eta agerian agertzea. Podemos-Euskadin uste dut ez dudala beste emakume lesbianik ezagutzen. Uste dut esan dut, aurpegia ematen bakarra naizelako, baina horrek ez du esan nahi inguruan ditudan emakumeek ulertzen ez dutenik. Auskalo. Mutilak berriz, ezagutzen ditut. Goi egituran, Herritarren Batzordean hiru homosexual gaude, gizonezko bi eta neu. Gauza ez da ni neure izate lesbianoa aldarrikatzen nabilenik batetik bestera. Ez da hori, baina bai naturaltasun osoz hitz egiten dudala nire bizitzaz, nire umeez eta nire neska-lagunaz. Uste dut jendea ohartu dela nik zuzenean lesbiana naizen edo ez aipatu gabe.

Nik alderdian ez dut arazorik izan. Onartzen dut alderdiaren oinarrizko egituretan zailagoa dela, dudarik gabe, badirelako kideak lesbianik ikusi nahi ez dituztenak. Baina goian, borroka politiko gordinean, lanean, ildo politikoan, hor ez dut inongo arazorik izan. Egia da emakumeek erdietsitako eremuei eusteko borroka egin behar izan duguna. Esan nahi dut, edozein ekitaldi publiko egiten denean gizonezko bik hitza hartuko badute, emakume bik ere aukera izan behar dute hitz egiteko. Eta emakume bi ez badira hor, liskarrean amaituko dugu. Argi eta garbi gainera. Latzagoa izan zaigu irabazitako eremuei eustea, horrenbeste aipatzen duten parekotasuna haintzat hartu eta mantentzea, ni neu naizena edozein tokitan aipatzea eta lesbiana bezala agertzea baino.

NATALIA GARDEAZABAL: EH Bildun uste dut oso-oso agerikoa dela zenbat gay eta zenbat lesbiana dagoen. Bai Bilboko Udalean, bai Batzar Nagusietan, guztietan gaude. Gure kasuan gainera, ez gara alderdi, lau alderdiek osatutako koalizioa baizik. Gehi nire moduko independenteak, jakina. Nik uste dut EH Bilduk badituela Podemosekin batera partekatzen dituen hainbat ezaugarri, beste horrenbeste ezberdintasun ditugun bezala:



ezkerreko erakunde politiko bi gara, gizartea eraldatzearen aldeko apustu garbia egin dugunak gure kideen, erakunde publikoetan aurpegia ematen dugunon eta gurekin bat egiten duten hainbaten bizimoduan oinarrituta. Ulertu ezina litzateke EH Bilduren baitan gure sexu nortasuna arazo izatea. Guztiz kontra gertatzen delakoan nago. Ez dut esango lesbiana edo gay izatea sustatzen denik baina... tira, besterik gabe.

Beste gauza bat da, eta berriro azpimarratu nahi dut hau, gure sexualitateak ez duela eraginik gure jardurea politikoan. Hau da, gure nahi eta gogo sexualak gure ohera mugatuta daudela, haratago erakundearen eragin barik. Eta hor dago koska, agerikoa den bakarra heterosexuala denez, eta baita hegemonikoa ere, jende guztiak uste duela bizi dugun mundua, une oro ordezkatzeko gaituen mundu hori, hedabideetan agertzen dena, bizitzaren alor guztiak bere baitan biltzen dituen, bai Eskolan, Elizan, banketxean... heterosexuala dela. Jakina, ustez naturala hori denez, hori ez den guztia ezkutatu egiten da, eta ustez naturala dena hegemoniko bilakatzen da, normalizat hartuz, ohikotzat. Oso zaila da, berriro diot, gertatzea... Gauza bat esatera ausartuko natzaizue, ez dakit zuoi gertatu zaizuen edo ez, baina esango nuke lesbiana izatea horren maskulinoa den eremuan, politikagintzan bezala baita kirol munduan ere, badirudi abantaila ere badela agerian agertzeko horren zurrinak zaikigun jarduera publikoaren etorbideetan.

Lesbianismoa badakit esterotipatua dagoena. Jende guztiak uste du lesbinak emakume ausartak garena, lar maskulinoak, eta horregatik errazagoa zaigula gizonen eremuotan jardutea. Baina begiratu dezagun homosexualitatearen auzia beste alde batetik, eta aztertu dezagun diskurtso publikoak onartzen duen, edo ez, gainfeminizaioa. Esaterako, pentsa dezagun luma handiko gizon homosexual bat Basauriko Udalbatzan. Niretzako errazagoa da, dudarik gabe. Nik lesbiana bezala ondo ezagutzen ditut haien diskurtsoaren parametroak eta alkateak begiratzen nauen moduan begiratuta ere, eta urte eta erdian mokoka behin baino gehiagotan amaitu dugu... tira ba, uste dut niretzat errazagoa dela luma handiko gizonetako kide homosexual batentzat baino, adibidez.

HAUSNARKETA ETA EZTABAIDA

MODERATZAILEA: Ados bazaudete Nataliak aipatu duenaren haritik eztabaida irekiari ekingo diogu orain.

Lehen galdera:

Nik, esaterako, Nataliak esan berri duenaren harira bai uste dut sexu nortasunak baduela toki berezi eta esanguratsua eskenatoki politikoan. Baina sexu nortasun heterosexualak du, batez ere. Azken hauteskundeetan zuok biok, zuon alderdikieekin



batera programa eta kanpaina egin duzue. Zelan ikusi duzue zeuon burua jendearen aurrean lesbiana bezala agertu izan zaretenean? Ala, zeuon izaera ezkutatu behar izan duzue? Ez? Zer pentsatzen duzue horretaz guztiaz. Izan dituzuen agerraldi politikoetan libreki hitz egin ahal izan duzue gai honi buruz?

NATALIA GARDEAZABAL: Kontutan izanik zein zakarrak izan diren azken hauteskunde kanpainak, esan dezakegu gezurrik esan gabe, lesbianismoaren inguruko auziek ez dutela lekurik izan ez kanpaina eta alderdien arteko eztabaidetan. Eta ez da izan gaiak garrantziarik ez duelako. Izan da gehiago gaia ez delako egon inongo alderdi politikoren gai zerrendan. Ez da izan EH Bilduren lehentasuna, baina ezta Podemos edo gainerako alderdiena ere. Argi geratu da gaia ez dela inorentzat hil ala bizikoa. Halabeharrez, gainera. Denok dakigun bezala alderdien arteko lehia muturrekoa izan da eta eztabaidak bestelako gaiak izan ditu ardatz.

EUKENE ARANA: Guk bai lortu genuen, Estatu mailan, ekainaren 26ko hauteskundeetan, nazio mailako egun bat hartzea LGBTI kanpaina egiteko. Egund hartan gai bakarrak, hedabideetan erabili izan genuena eta abar, gay, lesbiana edo transexual jendearen ingurukoak izan ziren. Alderdiak boza jarri zien LGBTI auzien gaineko gizarte egitasmoei. Hori Estatu mailako hauteskundeetan izan zen. Autonomikoetan alta, ez genuen ezer egin. Horietan ez.

NATALIA GARDEAZABAL: Horietan, Estatu mailako hauteskundeetan, guk ere bai, noski. Ekainaren 28ko atarian geundela, guk ere ekitaldi berezi bat egin genuen egun batzuk lehenago, adierazpen ofizial bat plazaratuz. Egia da badirela halako gaien inguruan hitz egiteko egun bereziak. Baina hauteskunde autonomikoetan, aitortu behar dut ezetz. Hor ez genuela ezer egin.

EUKENE ARANA: Arestian aipatu bezala, hauteskunde autonomikoetan guk ere ez genuen ezer egin. Baina egia da, baita ere, inoiz ez didatela esan ezin dudala huntaz edo hartaz hitz egin, edo gai zehatz baten inguruan hitz egin behar dudala, halabeharrez. Baina egia da, gaia ez dago gai zerrenda politikoan, ez bada gertatzen ekainaren 26ko hauteskundeetan bezala 28a handik bi egunetara izango zela. Pentsatzen dut izan zela, *ea gaiarekin zertxobait gehiago harrapatzen dugun, edo...*

NATALIA GARDEAZABAL: EH Bilduk bat egin zuen eta sinatu ALDARTEk aurkeztu zion agiria. Alde horretatik argi dago gure konpromisoa erabatekoa dela borroka honekiko. Baina hori azpimarratuta ere, berriro diot: gure ikuspegitik, LGBTI egitasmoen garapenarekin edota eskubideen berdintasunaren aldeko borrokarekin zerikusia duen oro berdintasunaren aldeko borrokaren barruan kokatzen da, eta horrek badu, eta beti



izango du, kokaleku berezia. Non? Feminismoan, alegia. Horregatik gaion inguruan hartutako edozein erabaki edo egindako ekimen oro mugimendu feministarekin eta enparauekin hitzartzen ahaleginduko gara, haiekin guztiekin elkarlanean jarduteko. Agian biharko gaiak ekarriko nituzke mahai gainera Katalunian egin duten moduko legeaz hitz egingo banu, eta hobeto biharko uzten badugu. Hala ere, argi dakusagu eztabaidak berebiziko garrantzia duela eta bihar jardungo dugu lasaigo horren inguruan. Beharrezkoa al da lege berriak indarrean jartzea? Zeren, ezin baitugu ahaztu legeak eta protokoloak dezente badigutula honezkero, eta horietako batzuk on-onak direla. Guztiok dakigu zertan geratu diren onartutako hainbat eta hainbat lege. Hutsarren hurrengo, ez delako diru nahikorik jarri, edo borondate politikorik ez delako egon bertan agindutako guztiak tajuz betetzeko. Lege zenbait nork bere burua zuritzeko onartzen dituzte. Hainbatetan bai, behinbat. Zenbatetan ez dugu bada entzun: *lege zoragarri bat onartu berri dugu eta hitza ematen dizuegu arduraz jokatuko dugula*, eta gero zer? Zakurraren putza! Ezker ikuspegitik lanean gabiltzan alderdi zein kideok bestelako jokabideak nahi ditugu. Brasilen dioten moduan, *samba gutxiago eta lan gehiago...*

Bigarren galdera:

Zuek biok esan duzenagatik uler daiteke ezkerreko alderdietan ez dagoela arazorik sexu nortasun edo orientazioarekin. Inor ez dutela baztertuko edo kanporatuko lesbiana, gay edo transexuala izateagatik. Bota ez baina, kasu handirik ere ez digutela egiten adierazi duzuela iruditu zait. Aurton horrenbesteko kanpainak izan ditugula eta, bat batean zerrendaburu argazkiak etorri zaizkit gogora eta, nire uste hutsa da edo, egia da ez dela egon ez EH Bilduko ez Podemoseko zerrendabururik lesbiana edo homosexuala denik? Adibidez: Noizko Euskal Herrian Iceta moduko bat, luma eta guzti?

EUKENE ARANA: Podemosi dagokionez, hauteskude autonomikoetan ez. Euskadin ez, eta... ez, ez da gertatu.

NATALIA GARDEAZABAL: EH Bilduk foru hauteskundeetan izan zuen zerrendaburu Ahalduen Nagusi izateko hautagai bat, gaur egun batzarkide dena.

(Entzuleetako batek egindako adierazpena) Baina ondoriozta dezakegu ez dela inor baztertzen, baina ez zaiola inori buru izateko aukerarik ematen...

EUKENE ARANA: Hor auzi bi bereiztuko nituztke. Batetik, iherarkia politikoa dagoela uste dut. Nire kasuan, esaterako, Bizkaiko zerrendaburu izateko Exekutiba edo Herritarren Batzordeko kide bi aurkeztu ginen primatrioetara eta botoa eman zutenek aukeratu zuten zerrendaburu. Ni neu izan nintekeen zerrendaburu eta kasu horretan



buru izango nintzateke. Gertatu zen Landerrek nik baino 150 boto gehiago lortu zituela eta bera izendatu zutela buru eta ni haren bigarrena. Baina inork ez zidan esan, *heu hirugarren edo laugarren postura jaitsi beharko dun*. Ez, nik Podemos barruan primariak irabazi izan banitu zerrendaburu izango nintzateke, eta kito. Eskerrak ez zen halakorik gertatu. Benetan diotsuet, ez naukan batere gogorik Bizkaiko zerrendaburu izateko. Bozketaren emaitzak ezagututakoan, lasaitasun ederra hartu nuen.

Hirugarren galdera:

Noiz izango dugu emakumezko bat, feminista eta lesbiana, lehendakari?

EUKENE ARANA: Bidean gaude. Nataliak bide erdia eginga dauka. Bion artean koalizio feminista osatu eta gurea izango da garaipena.

Entzule baten eskuhartzea

Nire uste apalean badu eragina, baita ere, goi mailako gizonen artean, maila guztietan izan ohi den konplizitatea. Azkenean beraiek erabakitzen dute nor doan, eta nor ez zerrendaburu. Gehigizkoa da gizonen joku zikina botere egiturei eutsi eta hor nor sartuko den, eta nor ez, erabakitzeko. Joku zikin hori egiazkoa da, kristalezko sabaia egiazkoa den bezainbeste, jakina. Nik uste erraztasunak ere ukatu egiten zaizkigula emakumeoi goi egituretara heldu ez gaitezen. Gakoa ez baita, beharbada, oztoporik ba ote daukagun gainditzeko, baizik eta erraztasunik batere ez daukagula ezer lortzeko. Ni neu boterean dagoen gizona izaki esaten badut *hauxe duzue hautagairik onena, berak du nire konfiantza osoa eta berarentzat eskatzen dizuet botoa*, harenak bai egin duela. Azken batean horizontaltasuna berdintasunaren bermetzat hartu ohi dugun arren, goi kupulak egitura patriarkalak izaten segitzen dute, erabat heteropatriarkalak.

NATALIA GARDEAZABAL: Galdera bat egin nahi duzuet. Gogoan al dituzue *Nekaneak*? Mahai gainera ekarri nahi ditut politikagintzan emakumeok daukagun irudia dugulako, neurri batean, gaurkoan hizpide. Gogoan izango duzue ez horren aspaldi oso garai latz eta korapilatsuak bizi izan genituela herri honetan. Sasoi hartan Ezker Abertzaleak emakume talde bat aukeratu zuen bere boza izateko Legebiltzarrean. Emakumeok bazuten itxura fisiko oso zehatza. Nolabait esatearren, eta hegemonia berea dutenen aldetik ikusita, emakumeok itxura lar maskulinoa zeukaten. Legebiltzarrean jarduteko itxurak bost axola, ezta? Bada, hemerrotekari erreparatzea besterik ez dago emakumeok jasan behar izan zutena gogoratzeko: irainak, isekak... haien kontra botatuko hainbat iritzi delitu izan zitezkeen, dudarik gabe. Irmo eutsi zioten emakumeok erasoaldiari eta tinko bete zuten eman zitzaien ardura. Iraganeko kontuak diren arren, ez dira ez, oso



aspaldikoak. Eta emakume hauek gogoratu ditut gorputzaren izateaz ari garelako, gorputzak hartzen duen eremuan performatiboki zer adierazten duen aztertzen, alegia. Kasu honetan, emakumeon gorputzak politikagintzan ari ziren, eremu erabat maskulino eta heteroarautuan, eta horregaitik zanpatu zituzten nahi beste. Egia da arinagotik zanpatu nahi zen aukera politiko bat ordezkatzeko zutela, ez dut hori ukatuko. Baina ikustea zelan erabili zituzten haien gorputzak eta zeukaten luma emakume haiek iraintzeko lotsagarria izan zen.

EUKENE ARANA: Izugarria izan zen hori guztia. Gure kontra iraina besterik ezin dute erabili gu gutxietako. Ez daukate inolako arrazoibiderik guri esateko *hemen ez duzue ezer egiten*. Haiek ez dakitena da irainek indarberritzen gaituztela. Nire kontra nahi duten beste iseka bota dezatela: *zaunka badabiltza, bide onetik goazelako da*.

Entzuleen lekukotasunak

Ni neu EH Bilduko zinegotzi nauzue Portugaleten. Hiru zinegotzi gara taldean, boilerak bi eta maritxu bat. Bada bitxia gure herrian jazo dena. Eta egin nahi dudana hausnarketa Nataliak botatako galderaren harira dator. Ekainak 28 dituen bakoitzean Udalak halako adierazpen ponpoxoa egin ohi du eta orduan, eta ez beste inoiz, haintzat hartzen gaituztela dirudi. Egoera erabat kafkiarrak gertatzen zaizkigu. Guk proposatutako edozer onartzen dute. Ahobatez onartzen dizkigute, gainera. Hori bai, udalbatza bukatutakoan Berdintasunaren zinegotzia etortzen zaigu, PSOEko kidea bera, eta zera galdetzen digu:

- *Aizue, LGBTTQ horretan zer adierazten du Q hizkiak?*

Edo martxoaren 8an edo azaroaren 25ean pankartaren atzean, ondo-ondoan daukagu PPko zinegotzia. Horrekin zera adierazi nahi dut, ezker askatzailean gabiltzanok erakunde publikoetan sartzen garenean, eta hori da guk egunero-egunero bizi duguna, kontraesan gordinak bizi izaten ditugula eta kontraesan horiek kudeatzea dela gure eginkizunik latzenetako bat. Mingarria ere izaten da, askotan. Eta bada ere zuk diozuna: beti araudien menpe, legedien hatzaparretan. Azken finean beraien joku zelaian gabilta, ez gurean. Errealitatea eraldatzeko sartu gara hor, baina etsaiaren araudien arabera jokatzera behartuta gaude. Kontraesan horiek gairatzen ahalegintzea, niri behinik behin, itorrigarri egiten zait.

Entzuleen lekukotasunak

Bat nator, erabat, aipatu dituzuen gauza guztiekin. Ama naiz, lesbiana, emakume eta gainera ingeniaria. Aurreiritzi eta gorbataz inguratuta bizi naiz. Ahatik ulertzen dut lesbianismoa subjektu politiko bezala, eta ez horrenbeste nork erakartzen zaituen edo



norekin oheratzen zaren. Izan ere, litekeena da inorekin ez oheratzea luzaroan, edo bai. Niretzat lesbianismoa subjeto politikoa da, eta dudarik gabe, gure lesbianismoa ikusgarri egitea politikoki jardun eta eragiteko modua da. Egunerokotasunean egindako politika da gurea. Gehiago esango dut, nire kasuan lesbiana izatea aldarrikapena da. Nataliak Hezkuntza arloan bizi dituen aukerak ukatu egiten zaizkigu eta, gure lanbidean. Neronek sortu behar ditut aukerak, ni neu izan nahi badut. Ni ez naiz aniztasunaren eredu, ni neu naiz aniztasuna. Ama naiz, emazteari urte batzuk ateratzen dizkiot, gure alaba adoptatua da, gainera beltza da, beraz esan dezaket hanka sartu barik aniztasuna ni naizela. Eta pentsatzen dut ikusgarritasun horretan militante izatea ez dudala kanporakoitasunagatik egiten, aukera egin dudalako baizik. Niretzako aukera izan da eta aukera hori, argi esaten dut, lesbianoa da erabat. Eta erabat feminista ere bada. Hainbat eremutan ez nuke asmatuko esaten zer den zailago.

Entzuleen lekukotasunak

Nik, hasteko, eskerrak eman nahi dizkizuet aipatu dituzuen guztiengatik. Neronek ez ditut bizi, ez nire azalean, egunerokoan emakume lesbiana izateak dakartzan sufrikarioak. Bat nator hitz egin duen kidearekin, gure bizitzaren arlo guztiak politikoak direla aipatu duenean. Ni neu, orain gutxira arte, lodia izan naiz, ohikoan onartzen ez den gorputzean bizi izan naiz, alegia. Horregatik ulertzen zaituztet horren ondo. Entzuten nizuen aipatuz zer suposatzen duen bestelako gorputz batean bizitzeak, bestelako sexu nortasun bat izateak eta horrek guztiorrek nola eragiten duen zuon bizitzan, edo ez, lantokian, borroka eta nolatan, askotan, norberaren adorea araberakoa izaten den hori guztiori balioestea lortzea, edo ez. Aipatzen zenuten zein neurritan ahalegin horiek norberaren bizkar geratzen diren eta zein neurritan gureak ditugun borroka guneetan, bizi ditugun erakundeetan, ahoz besterik esan arren, nola egiazki ez gaituzten haintzat hartzen ez digutelako gu geu izateko tokirik uzten. Gaizerrendatik kanpo gaudelako, gazua ez delako auzia hauteskunde programan aipatzea... azken batean ez delako hauteskunde programan izango, aurretik gaia ez badago gure agenda politikoan. Eta hau guztiau esaten dizuet ni neu potoloa izan naizelako, eta urtetan hainbeste kostatu izan zaidalako *lodi* hitza aipatzea ere, lodifobia jendarte honen errailetan emakumeon kontra txertatuta dagoen beste fobia bat baita. Gizonen kasuan guztiz bestelakoa da egoera. Eta heltzen da une bat non ez duzun ulertzen zergatik ez den politika publikorik egiten gai horren inguruan, eta ez dakizu oso ondo zelan borrokatu horren kontra, zu zeu egun batean bai eta hurrengoan ere bai lodifobia latz hori sufrutuzen ari zarenean, guztiek esaten dizute-eta ez duzula gorputz hori eduki behar.



Orain arte ez zitzaidan burutik pasatu zein antzekoak diren gure arazoak. Nolatan araudi zurrun horrek gure bizitzan horren gordinki eragiten duen. Eta ez da bakarrik lodi izan naizela. Gizarte mugimenduetan egiten dut lan, euskal baserritarren mugimenduan. Zoragarriak dira inguruan ditudan emakume baserritarrak. Beraien feminismoa egiten dabilta emakume horiek, baserriko begirada duen feminismoa. Eta Bizkaiko EHNE, eta Europako Nekazarien Bidean eginak dira jada gai horiek lantzen hasteko ahalegin xumeak. Bada gure artean jende ausarta hasi dena esaten *LGBT zera hori eta elikadura burujabetza...* Jakina, jasoko duten lehenengo erantzuna argia da...

- *Eta, zer ikusi dauka horrek elikadurarekin? Zer ikusi dauka txortan norekin egiten duzun hau edo beste landatzeko, edo bai?*

Jakina zerikusirik baduena! Nik uste gakoa dela guk erabakitzea nola nahi dugun gainerako herritarrek ulertu eta haintzat hartu ditzaten nekazarion aldarriak. Bizitza oso bat daramagu jendearen elkartasuna eskatzen. Baina gero bestelako arazo bat, gai bat mahai gainean jartzen digutenean, sexu nortasunagatik bazterkeria sufritzen dutenen auzia, esaterako, zera erantzuten dugu: *nirekin, horrek zerikusirik ba al du bada?* Argi dago zu zeu jendartea eraldatu nahi duen eragile politiko askatzailea izan nahi baduzu haintza hartu beharko dizutula, zure egin, besteen arazoak. Eta zure egin horretan, agian, hasteko zure helburu politikoa formakuntza baino ez da, ikusi eta ikasi. Zelan egiten dugun gure erakundeak benetan politikoak izan daitezten? Zelan egin gure erakundeek benetan izan dezaten arazoek gaineko ikuspegi osoa? Edo, zelan egiten dugun gure begiek ez dezaten ikusi bakarrik eskubide sexualei edo ugalketa eskubideei dagozkien errealitateak. Gure begiek haratago ikusi behar dute, gorputzak askotarikoak baitira eta horietako bakoitzean bada eraldaketa sozialari lotuta dagoen auziren bat, gure-gurea egin beharko duguna.

Laugarren galdera

Aipatu duzuen bezala, gaia ez bada ere estrategikoa zuok ordezkatzeko duzuen alderdientzat, jakin nahiko nuke honi buruz zer aipatzen den zuon alderdien programetan. Labur bada ere, zerbait aipatzen al da sexu aniztasunaren edo genero nortasunaren inguruan? Alegia, ekainaren 28an eta maiatzaren 17an plazaratu ohi diren agirietatik haratago, ba al dago zerbait idatzita zuon alderdien agirietan? Jakin nahiko genuke, bestalde, zuon alderdietan egin al duzuen ahalegina gai hauek egikaritzeko edo, gutxienez, hausnarketarik egin ote duzuen zelan egikaritu asmatzeko. Biok aipatu duzue ezin direla gai hauek landu ez bada kontutan hartzen feminismoa. Argi dago, baina, Estatu mailan administrazioen aldetik egin diren ahalegin apurrek ez dutela izan oinarri feministarik. Zeintzuk dira zuon ustez lehentasunak, zeintzuk arazoekin egiten duzue



topo gaia lantzerakoan. Nataliak iradoki bezala, nik ere pentsatzen dut, berdintasun teknikaria naizen aldetik, alderdi politikoak direla egiatzko etsaia. Eta hala dira artez edo moldez. Azkenik, zera jakin nahiko genuke: ikusgarritasuna ondo dago baina, administrazioek ezin digute lesbiano politikagintzan ikusgarri izateko aukera bakarrik eskaini, ezta?

NATALIA GARDEAZABAL: Nik bihar erantzungo dizut, hori biharko gaia delako. Baina kideak aipatu duenaren harira, nik badut zer gaineratu, galdera moduan: Lesbianismoak zerikusirik ba ote du zerga politika berdintzaile eta aurrerakoi batekin? Edo, politika publiko aurrerakoi eta ez baztertzailak egikarituko dituen eta diruaren, merkatuen eta ugazaben ordez pertsonak ardatz gisa hartuko dituen estatu baten aldeko apustuarekin? Lesbianismoak zerikusirik ba ote du elikadura burujaetzarekin? Zerikusirik bai TTIP, CETA edo PISA bezalako merkatal hitzarmenen kontrako borrokarekin? Lesbianismoak ba ote du harremanik militarkeriaren kontrako salaketarekin, edo sos publikoak baliatuz eraikitzen diren azpiegitura erraldoi eta suntsitzaileen kontrako aldarriekin? Zer ikusia du lesbianismoak honekin guztiarekin? Nire erantzuna garbia da: lotura erabatekoa da. Lesbianismoa, arestian aipatu dudana bezala, ez baitauka zerikusirik larrua norekin jotzen duzun, edo ez duzun jotzen, ez zein maiztasunarekin jotzen duzun, zein kalitate mailarekin, edo ez... Edo ez bakarrik horrekin. Niri lar kostatzen zait ulertzea nola izan daitekeen emakumezko bat oso kontziente lesbiana bezala bizi duen menpekotasunaz, baina ez du ikusten, edo ez du ikusi nahi, beste zapalkuntza batek beste gorputz bat menperatzen duenean, dela arraza edo dela klase soziala. Ez zait buruan sartzen. Ezkerretik, guk ulertzen dugu den-dena lotuta dagoela eta horixe da, hain zuzen, gure erronka, zelan egin Administrazioetik eta politika publikoetatik teoriarik oso argi daukaguna gure eguneroko bizitzan egikaritzeko. Ondo dakigu erronka horretan arazo oso larria daukagula.

EUKENE ARANA: Nik zera proposatzen dizuet, teoria dena gauzatu dezagun. Subjektu politiko lesbianoa aipatu dut arestian, zuk zeuk ekarritako diskurtsoarekin bateginez, zerikusi baduena bihar hitz egin beharko dugunarekin eta konkretizatzearen, subjektu politiko lesbianoa aipatu duzunean, zer aipatu nahi zenuen horrekin? Gako pertsonalez ari gara? Zein neurritan eragiten dio gako personalak gako politikoari? Zein neurritan eta maneratan eragiten dio gako politikoak gako pertsonalari? Azken batean uztarturik datoz biak. Subjektu politiko lesbianoak zer hartzen du gako pertsonaletik maila politikora eramateko? Edo, zertan bereizten dira, edo zertan bereizten da gure borroka gainerako borroketatik? Lotu daitezke, jakina, baina, zerk bereizten gaitu haiengandik? Beste modu batez aipatu dezagun: zertan lagundu diezaiekegu gainerako borrokei?



Feminismoa eta lesbianismoa

EUKENE ARANA: Feminismoak historikoki izan duen xedeetako bat besteek sufritu injustizien kontra borrokatzea izan da. Bat egin du langileen borrokarekin. Eta lesbianok emakume eta feministak garen aldetik, abortoarene alde borrokatu gara eta gure egin dugu bandera hori. Nik pentsatzen dut gizatalde bateko partaide zaren neurrian, gu guztiak emakumeak baikara, eta zapalkuntza bat pairatzen duzunean, eta oso argi daukazunean zure taldea betidanik egon dela zapalduta... solidarioa izatea, zentzuzkoena ere badela. Nik argi daukat zerbaitek bereiztu izan badu feminismoa, hori izan dela, injustizia ororen kontra borrokatzen izan duen irmotasuna. Gizarte eskubideen aldeko aldarrietan lehenak izan gara. Eta lesbianok, oraindik gehiago. Emakumeak izanik zapalkuntza larriuan sufritu dugulako, begi onez ikusi ditugu beti desberdintasunak eta horregatik ez dugu arazorik izan ezberdina zena onartzeko. Nik beti esan izan dut feminismoak zerbait badu, hori dela: hamaika emakume dago, denak ezberdinak, hamaika arazo eta ikuspegi. Pentsa dezakegu Soraya Sanz de Santa Maria ez dela feminista, baina bai emakume... alegia, kapazak gara gurekin zerikusirik batere ez duen emakume bat ulertzeko, emakume delako eta emakume garelako, besterik gabe. Emakume izanik, gaur ez bada bihar hark ere bazterkeriaren bat sufrutuko duela ondo dakigu eta. Oso abstraktua da buruan jirabueltan daukadana, baina pentsatzen dut gai garela edonorekin enpatizatzeke, baita etsai amorratuenearekin ere. Horrenbeste sufrutu dugu, horrenbeste borroka egin behar izan dugu, ikasi dugula ikusten, enpatikoak izaten, eta batasuna aipatzen dugunean, ezkerreko indarren batasuna, jardueren eta pentsamoldeen batasuna, usted dut hori feminismotik lortu daitekeela. Zergatik diot hori? Gu gai garelako elkarri begiratu eta gauzak argi eta garbi aurpegiartzeko; feministok gai garelako liskar bizian eztabaidatu ondoren, kalera atera eta pote pare bat elkarrekin hartzeko; lagun hurkoarekin enpatia lortzeko, haren minak ulertzeko, haren jarrerak haintzat hartu eta esateko: *hainbat gauzetan ez nator bat zurekin baina zure jarrea ulertzeko gai banaiz*. Ez dakit ondo azaldu dudan esan nahi nuena.

NATALIA GARDEAZABAL: Gauza bi: feminismoa eta lesbianismoa. Esan nahi dut, ez daukat zalantza izpirik feminismoa dela inoiz izango dugun arrazoibide eta jardunbiderik eraginkorrena. Oraindik gehiago, esango dut feminismoa dela ia arrazoibide bakarra non gainerako arrazoiek leku izan dezaketen. Horretan ez daukat zalantza izpirik. Gero eta argiago daukat: feminismoan daukate lekua sozialismoak bezala, zapalkuntzen eta menpekotasun ororen kontrako borroka guztiek. Baina gaur, hemen, lesbianismoa dugu hizpide. Eta ausartuko naiz esatera komunismoa sozialismoaren xede gorena den bezala, lesbianismoa dela feminismoarena. Esan nahi dut, zein da lesbianismoaren ekarpenik nagusia? Zeintzuk osagarri ditu? Izan ere, lesbianismo kontzeptuaren esangura



berrito zehaztu behar dugulakoan bainago. Arestian aipatutakoa berrestera nator: lesbianismoak zerikusi gutxi dauka ohekide daukagunaren hankartean aurkituko dugunarekin. Zerekin du zerikusi orduan? Denboran ere atzera egin dezakegu eta aztertu zein izan den historikoki lesbianismoak feminismoan izan duen egitekoa eta izan dituen ekarpenak. Nik hor, esaterako, kontraesan handiak ditut. Lesbianismoaz ari gara baina, aipatu dugun guztiak berdin balio al du gizonaen homosexualitatearentzako?

Lehenengo egunaren amaiera



AZAROAREN 30ean:

ELKARRIZKETA ETA HAUSNARKETAK LESBIANISMOAREN INGURUAN POLITIKA PUBLIKOETAN *Alderdi politikoetako lesbianen arteko elkarrizketa*

- **NATALIA GARDEAZABAL**, lesbiana feminista eta EH-BILDUren zinegotzia
- **MIREN URRESTI**, lesbiana feminista eta EAJ-PNVren zinegotzia
- **EUKENE ARANA**, parlamentaria, ELKARREKIN-PODEMOS
- **MIREIA BIOSCA**, lesbiana feminista eta ALEAS IZQUIERDA UNIDAREN aktibista

Moderatzailearen aurkezpena:

Diana Urrea (EH-BILDUren parlamentari ohia)

Gaurkoan, *Lesbianak ikusgai eta eskubidedun* izeneko jardunaldiotan, alderdi politikoak izango ditugu auzi honen inguruan eztabaidatzen. Horretarako mahaian ipini ditugu Miren Urresti EAJko zinegotzia Ondarrun; Eukene Arana Elkarrekin-Podemos alderdiko legebiltzarkidea Gasteizen; Natalia Gardeazabal, EH Bilduko zinegotzia Basaurin; eta Mireia Biosca, Izquierda Unida alderdikoa Valentzian. Lau emakumeok euren alderdian dituzten ardurez gain, lauak dira lesbianak eta feministak.

Bi galdera egingo dizkiegu gure solaskideoi gure ustez oinarrizkoak direnak atzo hasitako eztabaida eta hausnarketa egitasmo egingarritan zehazten hasteko. Gaurkoan, *Lesbianak ikusgai eta eskubidedun* izeneko kanpainaren barruan, gaia arlo publiko, politiko eta instituzionalean nola gauzatu aztertzen saiatuko gara. Horretarako oinarri-oinarrizkoa den galdera batekin hasiko gara, hizlariei aukera emango diena beraien erakunde politikoaren egitasmoak ezagutzera emateko.



MIREIA BIOSCA

Niretzat Valentziatik Euskal Herrira etortzea beti da ohorea, dakizuen bezala periferiako herrietan bizi garenok elkarrekin batzeko joera daukagu eta. Irrikitan nengoen, bai, Bilbora etortzeko. Atsegin handiz aurkezten natzaizue halako foro batean non gehienak emakumezkoak garen eta eztabaidatzeko aukera izango dugun. Politikaz hitz egin asmoz etorri gara hona, emakume lesbianontzako politika zehatzen gainean hitz egin asmoz, eta ez, maiz emakume lesbiano i leporatzen zaigun bezala, *nesken gaineko auziak jorratzeko*. Feministak garen emakumeok politika egiteko batzen garenean, askoz errezagoa izaten da eskubideak aitortuko dizuten egitasmoak egikaritzea, gaurkoa bezalako jardunaldietan emakume lesbianen eskubideak. Eta berdin dio gutako bakoitza zein alderdikoa den, Giza Eskubideen gaineko oinarritzko baldintzak betetzen ditugun bitartean. Gure artean errazagoa izaten da batzen gaituzten gakoak aurkitzea. Gaurkoa bezalako foroak, non lasai-lasai huntaz eta hartaz hitz egin dezakegun eta politikaz eztabaidatu, ezinbestekoak dira politika lesbikoak garatu ahal izateko. Beti eskertzen dira halakoak.

Galderari dagokionez, esango dizuet Ezkierda Unidako kideon ustez ezinbestekoa dela, giza talde baten gaineko edozein egitasmo aztertzen denean, azterketa talde horretako kideekin batera elkarlanean egitea. Ez dauka zentzurik emakume lesbianen eskubideen gaineko legeak egitea, prozeduran ez badira kontutan hartzen emakume lesbianen iritziak. Zoritxarrez alderdi politikoetan ez da horrenbesteko emakume lesbiano izaten, agerikoak ez behintzat. Baina uste dut garrantzitsua dela oso edozein egitasmo talde horrekin adostea, talde horretan antolatuta dauden kideekin behinik behin. Toki guztietan aurkituko ditugu antolatuta dauden emakume lesbianen erakundeak. Bai hemen, baina baita Estatuko gainerako herrialdeetan ere. Talde horiek oso garbi daukate zeintzuk politikak garatu nahi dituzten Parlamentuan. Haatik ezinbestekoa da haiekin hitz egin eta egin nahi den guztia beraiekin adostea. Nik bai pentsatzen dut Parlamentuan egon, egon behar dugula kaleko aldarrien bozgorailu izateko. Gure kide batzuk badute aukera herritarren aldarriak halako foroetan ezagutzera emateko, eta horixe da beraien eginkizuna, kaleko eskakizun, protesta eta aldarrien bozgorailu izatea, alegia. Berdintasunezko Ezkontza Legea onartu zen, baita Genero Nortasunaren Legea ere, eta garaipen horiek lortu ziren ez parlamentari hainbatek egitasmo bi horiek onartzeko irrikitan zeudelako, baizik eta LGBTI mugimendua kalean ari zelako protestan, argi utziz zeintzuk ziren beraien eskakizunak eta zer nahi zuten agintariek onartzea. Horixe bera gertatzen ari da politika lesbikoekin. Nik neuk ezin ditut bereiztu borroka feminista eta LGBTI mugimenduen borroka. Eta Ezkierda Unidan oso argi daukagu hori. Niretzako LGBTI borroka feminismoaren oinordeko zuzena da eta borroka biak



elkarrekin doaz, bai edo bai. Emakume lesbianok emakume gara eta, hortaz, larruan sufritzen dugu gizonen munduak inposaturiko zapalketa. Emakumeak bigarren mailako herritarrak gara mundu honetan eta guk, lesbianok, sistema heterosexuala lokan ipintzen dugu gainera, eta ozen eta argi esaten dugu ez daukagula gizonen beharrik ez maila ekonomikoan, ez sozialean eta oraindik gutxiago ohean, gure bizimodua era autonomoan garatzeko. Beraz bikoitza da jasaten dugun bazterkeria eta bikoitza, ondoriz, gure aldeko politikak garatzeko bidean aurkituko ditugun zailtasunak. Pentsatzen dut beharrezkoa dela hori guztia argi izatea gure jardunbideak zehazterakoan; argi izan dezagun sistema patriarkalaren barruan derrigorrezko heteroaraudia dela zutabe oinarritzkoenetako bat, guk lesbianok kolokan jartzen duguna. Edozein botere sistemak bere burua lokan ikusten duenean, bortitz erantzuten du. Haatik sufritzen dugu guk, emakume lesbianok, horrenbesteko indarkeria eta zapalkuntza, eta horregatik egiten gaituzte ikustezin.

MODERATZAILEA: Mireia, ondo baderitzozu horretan utziko dugu aurkezpena. Esango dut Mireia tortilera feminista dela, militantzia Lamda kolektiboan (LGBTI) hasi zuela Valentzian, estudianteen mugimenduan ere nabarmendu zela eta azken urteotan baita ere bertako mugimendu feministan. Gizarte arloko ekintzailatzat du bere burua, Esquerra Unida alderdiko kidea da eta bertan ardurak izan ditu Feminismoa eta Aniztasun Afektibo-Sexualak lantzen dituzten batzordeetan, bi urtez azken batzordeko buru izan delarik Estatu mailan. Gizarte hezitzailea da formazioz eta konbentziturat dago eraldaketa soziala erdiesteko ezinbestekoak direla, derrigorrezkoak, formakuntza eta hezkuntza.

MIREN URRESTI

Niretzako erronka handia da hitzaldi honetan egotea eta, batez ere, gaztelaniaz hitz egitea. Jendaurrean hitz egiten ohituta nagoen arren, ez daukat gaztelaniaz hitz egiteko erraztasunik. Ezer esan aurretik ALDARTEko lagunei hemen izateko egin diguten gonbitea eskertu nahi diet eta aniztasuna hizpide izango badugu, segi dezagun hizkuntza aniztasunarekin. Pentsatzen dut mota honetako jardunaldiak garrantzitsuak direla oso askotariko emakumeak batzen garelako, ekimen bateratuak zehaztu ditzazkegulako eta, ahal dela behintzat, estrategia amankomunak eta zehatzak marrazteko aukera ematen digutelako. Eta hau guztiau, zertarako? Emakume izateagatik, eta emakume lesbianak izateagatik pairatzen dugun bazterkeriari hobeto erantzun eta aurre egiteko.

Lesbianen gaineko politika publikoei buruzko sarrera txiki honetan, ezer baino lehen, zera azpimarratu nahi dut, lesbianak ere askotarikoak garela, alegia. Guztiok ez ditugu beharizan berberak, desio berdinak, eta ez ditugu egoera bertsuak bizitzen. Aniztasun



hori ere kontutan hartu beharko dugu egitasmo publikoak marrazterakoan. Hori bai, botere publikoek eta horietan guztietan gauden alderdi politikoek emakume guztien eskubideak bermatu behar ditugu eta, jakina, baita emakume lesbianen eskubideak ere. Emakume guztiei bizimodu osasuntsuago, justuago eta bizitzea merezi izango duena bermatze aldera, bizitzaren alor guztietara zuzendutako ekimenak bultzatu behar ditugu.

Ikusgarritasun ezak arazo larria izaten segitzen du. Emakume lesbianon ikusgarritasun eza ohikoa bilakatu da. Oraindik orain ezustekoak eragiten ditugu gure burua lesbianatzat aitortzen dugunean, batez ere bizitzan harreman heterosexualen bat izan badugu arinago eta gazteak ez bagara. Zaila egiten zaio askori lesbianismoa ulertzea eta zaila askotan guri, azaltzea. Argibide ugari eman behar izaten dugu eta horiek ematea tokatzen zaigu, edo ez, segun eta nori. Larria da benetan horren hedatua dagoen heterosualtasun presuntzioa. Jaiotzen garenetik denek pentsatzen dute heterosualak garela, mundu guztia dela heterosexuala. Emakumeok batez ere, gizonezkoak eragile hartzen diren neurrian, edozer izan daitezke, baina gu beti, objetu. Kasu honetan gizonen apeta asetzeko objektuak.

Nire pentsamoldearen oinarriei dagokienez, bat egingo dut kide valentziarrak esandakoarekin eta guk ere, gure jarduna, feminismoan oinarritzen dugula aitortzen dut. Gurean ez dago ezberdinak izateko aukerarik, eta are gutxiago aukeratzeko modurik. Emakume-gizon binarismoa nagusi da eta sexualitate aukeraren alorrean binarismorik ere ez, heteroaraua inposatzen da, nahi eta nahi ez. Baldintza horietan esterotipoak, rol eginkizunak, sariak eta zigorrak gailentzen dira. Eta arauak uxatzen dituzten guztiei ondo dakigu zer jazoko zaien: emakumeen kontrako indarkeria, misoginia eta lesbofobia. Batzutan badirudi sistema moldatu egiten dela, baina ez da egia, plantak egiten ditu ezer aldatu ez dadin. Dena aldatzen da ustez, denak berdin segin dezan. Hori argi dago, nahiz eta gero eta forma aldetik zapalkuntza leunagoa baden. Hori bai. Hargatik, feminismoan oinarritzen dugu gure jarduna, hark zehaztu eta azaldu duelako ongien patriarkatua zer den eta hark egin diolako aurre eta kontra.

Mundu matxista honetan gizon ala emakume izatera behartuta gaude, eta horrek berehalako ondorioak ditu gu guztiontzat. Oso ondorio larriak guretzat, emakumeontzat. Eta inposatu zaizkigun rol eginkizunekin bat egiten ez dugunok, txikitandik sufrutuko dugu indarkeria eta lesbofobia.

MODERATZAILEA: Miren Ondarroan jaioa da. Zientzia Politikoak eta Soziologian lizentziatua da, Berdintasun masterra egin du EHUan, Ondarroako Emakumeen Ahalduntzerako Eskolako ikaslea izan da eskola sortu zenetik, 2005 urtean, eta eskola



horretan lortu zuen, hain zuzen, daukan formakuntza feminista. Ondarroako Banda Feministako kide ere bada. Berdintasun teknikari bezala lan egiten du eta politikari dagokionez, EAJ kide da, formalki, jaio zenetik 1999 urtean. Bizkako Batzar Nagusietako batzarkide izan da eta une honetan zinegotzi jeltzalea da Ondarroako Udalean.

EUKENE ARANA

Lesbianok arriskura kondenatutako giza taldea osatzen dugu, aurretik hitz egin duten kideek aipatu duten bezala. Emakume izate hutsagatik pairatzen ditugun arrisku sozial eta ekonomikoak biderkatu egiten zaizkigu guri, lesbianak izateagatik. Etiketa bikoitzaren pean bizi gara. Horrek, ondorioz, bazterketa bikoitza sufritzera kondenatzen gaitu eta indarkeria bikoitzaren biktimak izatera. Horrez gain, Osasun arloko langileen ezjakintasuna eta aurreiritziak jasan behar izaten ditugu, ginekologarengana goazenean edo osasun arazoren bat medio, haien premia daukagunean. Lagundutako ugalketarako aukerak mugatuta dauzkagu, bai eta bikote eta familia harremanak babespean garatzeko aukerak ere. Familia barruan sufritzen dugun indarkeria ezkutatu egiten da, eta eskolan jaso ohi dugun heziketa zikiratzailea da, arau heterosexuala betetzera kondenatzen gaituelako.

Guk uste dugu lesbianen inguruko politika publikoak, eta nik ere uste osoa dut horrela izan behar duela, emakume lesbianek eta lesbianen taldeek eginak izan behar dutela. Inork ez du guk baino gaitasun handiagorik gure eskubideak defenditzeko, edota gure premiak ezagutzeko. Teoriaren sustraia, jakina, feminismoa da, eta hala izan behar duela uste dut feminismoarekin ezinbesteko borroka komuna daukagulako, emakumeon eskubideen defentsa, hain zuzen. Gu, emakume garen aldetik, hamaika injustizia sufritzen dugu. Lesbianak garen aldetik, nik neuk bai behintzat, gertuago ikusten dugu geure burua mugimendu feministatik, LGBTI mugimendutik baino. Garai bateko borrokaldietan ikasi genuen LGT taldeetan ere –garai hartan hiru hizki horiek baino ez zituen biltzen mugimenduak- g emakumeok beti geratzen ginela gizonen atzetik, eta haien itzalak ezkutatuta, ikusezin. Horren harira, oker ez banago Euskadin lesbianismoaz inoiz argitaratu den lehen artikulua 1977 urtean plazaratu zen, Gay Hotsa aldizkarian. Idatzian EHGAMEko emakumeek protesta egiten zuten taldearen barruan emakumeak ikusezinak zirelako, eta taldeko gizonak, gizon izate hutsagatik, beraiek baino abantaila handiagoak zituztelako. Artikulu horretan dei zuzena egiten zioten mugimendu feministari beraiekin bat egin eta beraien eskubiden alde borrokatu zedin. Nik uste feminismoa mesedegarri izan zaigula emakume lesbianoiei. Hari esker ikusgarri izatera heldu gara eta hainbat eskubide lortu ditugu. Hori esanda, aitortu behar dugu une



honetan atzerako bidean gaudela, mugimendu feminista borroka fronte larregitan sartuta dagoenez, gu baztertuta bezala geratu baigara eta, neure ikuspegitik, ez daukagu babesik edo laguntzarik ez mugimendu feministaren aldetik, ez eta LGBTI mugimenduaren aldetik ere. Une honetan babesgabe ikusten dut geure burua. Uste dut batu eta eratzeko premia daukagula, gure arazoei eutsi, borrokan hasi eta alderdi politikoekin bitartekaririk gabe negoziatzen hasteko. Neu Legebiltzarrean egonik, borroka hori neure gain hartzera behartuta nago, lesbianismoaren bandera neure eginez.

MODERATZAILEA: Eukene feminista-lesbiana da eta bikien ama. Lan munduan bere buruari ezarritako xede guztiak lortu ditu, jakinminari, irudimenari, lanari eta bikote duen emakumearen laguntzari esker. Oso gazte hasi zen lanean publizitate teknikari bezala, bizitzari irauli bat egin eta Hezkuntzarako bidea hartzea erabaki zuen arte. Lehen mailako Hezkuntzan lizentziatu izatea lortu zuen. Une honetan legebiltzarkidea da Gasteizen Elkarrekin-Podemos alderdiaren izenean, eta erakundeko Herritarren Batzordeko kidea da, bai eta Podemos-Euskadi alderdiko berdintasun arloko arduraduna.

NATALIA GARDEAZABAL

Berba egiten azkena izanik, ez dut errepikatu nahi esan diren hainbat gauza, baina bat egin nahi dut, hori bai, Mireia lagun valentziarrak elkarlanaren inguruan esan duenarekin eta aipatu duen ideia nagusiarekin. Guk ere, EH Bilduko kideok, uste dugu gure egitekoa erakunde publikotetan kaleko aldarri eta borroken bozgorailu izatea dela. Ados erabat Mirenekin esan duenean askotariko lesbianak gaudela eta berak bezala uste dut ikuspegi hori ezin dela bazterrean utzi. Esan dena ez errepikatzearen, bakarrik azpimarratu nahi dut guretzat ere feminismoa dela gure borroka eta izatearen oinarri teorikoa, paradigma eta xede ditugun aldarriak inoiz erdiesteko lanabesik eraginkorrena. Feminismoa delako, gure ustez, gizarte patriarkal honetan emakume eta lesbiana bezala sufritzen ditugun zapalkuntza ooren kontra borrokatzeko tresna.

Nik, hala ere, beste ikuspegi batetik heldu nahi diot gaiari. Atzoko eskuhartzean ere zertxobait aipatu nuen. Buruan darabilten gogoeta bat da, asko kezkatzen nauena eta mahai gainera ekarri nahi dudana: zelan sistemak mugimendu askatzaileen borroka bereganatuz, horietako hainbat indargabetzea lortu duen, mugimendu feministaren eta LGTBI mugimenduen borroka, besteak beste; nola lortu duen abilezia borroka horien berba esanguratsuak edukiz hustutzea, politika esangura hutsalen azoka bihurtuz; eta nola sistema bihurtu den data zehatzetan –martxoak 8, azaroak 20, eta abar, eta abar– adierapen instituzionalak egiteko makina. Agintariak iaioak bihurtu zaizkigu



diskriminazio ororen kontrako planak eta protokoloak egiten, edo ustez indarkeriak eta injustiziak gainditzeko balio behar zuten lege bikainak onartzen. Paperean arau ezin hobeak onartu dituzte, bai, baina ezerezean geratu diren araudiak izan dira gehienak, funtsean ez baitute ezertarako balio izan. Jakina legeak eta araudi egokiak egitea beharrezkoa ez ezik, ezinbestekoa dugula! Arazoa ez da hori. Ez baita gauza bera Emakunde moduko egitura egotea, edo ez egotea; edozein arazoren aurrean babesa eskainiko dizun lege bat edukitzea, edo ez edukitzea. Jakina ezetz. Baina beldur naiz, eta pentsatzen dut garaiotako patua dela hau, sistemak ez ote duen halako trebezia miresgarria lortu, bere burua ustezko jaka demokratiko batez mozorrotuz, azkenean arazoak eta zapalkuntzak bere horretan uzteko. Mirenek Gatopardokeria aipatu du - dena aldatu denak berdin segi dezan-, eta egunotan ikusitakoek argi erakusten dute halaxe gertatzen ari dela.

Legeak eta araudiak ezinbesteko abiapuntu dira, politikan jarduteko oinarri teoriko bat izan dezagun. Arazoa da agintariak ez dituztela ia inoiz aintzat hartzen araudiok. Zergatik esaten dut hori? Lege bikainak onartu arren, ez delako gero hor zehaztutakoa garatu, aztertu eta egikaritzeko diru nahikorik jartzen, eta baliabiderik gabe hutsarren hurrengo bihurtzen dira asmo juridiko horiek guztiak. Erralitate hori ez badugu kontutan hartzen, jai daukagu. Eremu publikoan egindako ahalegin guztiak hutsalak izango dira. Ez hori bakarrik, gerta dakiguke sistemaren jardunbide zital horiek gure egitea eta legea badagoelako, batzordea osatu delako edo dena delakoagatik, hutsaren hurrengo den guzti horrekin konforme eta gustura geratzea. Lesbianon kasu konkretuan, gerta dakiguke sufritzen dugun ikusgarritasun eza areagotzea eta, ondorioz, pairatzen dugun bazterkeria biderkatzea. Ideia hauek hausnarketarako uzten dizkizuet. Argi utzi nahi dut ni neu ez nagoela araudiak, legeak, planak eta enparauak egitearen kontra, baina ez dezagun ahaztu zein egoeratan gauden lege horiek guztiak indarrean egonda ere.

MODERATZAILEA: Nataliak gogoeta sakonak egin nahi izan ditu bere aurkezpen solasean. Gure sexualitatea eremu pribatura mugatu behar dugula uste dutenen aurrean, aitortu ezineko grina nazkagarria bailitzan, ezkutatu beharrezkoa eta lotsa iturri beharko lukena izan, lesbiana feminista honek uste du gako personal oro politikoa dela, politikak gure gorputzak alderik alde zeharkatzen dituelako. Gure gorputzak dira, bere ustez, mundu heteropatriarkal, arrazista, berekoi eta kapitalista honi aurre egiteko daukagun borroka tresnarik eraginkorrenak; beldurra, lotsak eta zapalkuntzak gainditzeko lanabesik minenak direla uste duen bezala, alegia, askatasuna lortze aldera. Ongi etorri, Natalia.



Lehen galdera

Arestiko sarrera hitzaldiok entzun eta gero zerbait azpimarratzekotan hizlari guztiek hurkoarekin enpatizatzeako erakutsi duten gogo nabarmenduko nuke. Feminismoak eta lesbianismoak eskainitako aterpearen babesean bide bat jorrazteko gaitasunik badela erakutsi dute. Politikan uste ezberdinak eduki arren, elkarlana zelan landu aztertu behar dugu segidan, ikuspegi feminista eta lesbikotik aurrera egin ahal izateko. Horiek guztiak oinarri, hona hemen milioia balio duen galdera: Zelan egin behar ditugu lesbianen mesederako politika publikoak, zeintzuk dira bidean izango ditugun erronkak eta elkarlanak zenbaterainoko ahalema izango duen. Zurekin hasiko gara Natalia.

NATALIA GARDEAZABAL: Zaila da gero, erantzuna. Itzietatik atzo zerbait aipatu zuen eta egia da zaila bezain beharrezkoa dugula erantzun egokia aurkitzea. Askotan gaitza izaten da gu guztiak asetuko gaituzten erantzun zehatzak aurkitu eta lantzea. Ez diot galderari ihes egingo, baina ezingo dut esan gabe utzi, hamaikagarrenez esango badut ere, ezinezkoa dela lesbianon bizimodua hobetzeko politika publikoak marraztu eta garatzea, ez badira politika publikoak marrazten eta garatzen emakume ororen bizimodua hobetuko dutenak. Bestela ezinezkoa izango zaigu ezer lortzea. Gero, agian, zertxobait gehiago zehaztu ahal izango dugu, eta eztabaidatu, gurean LGBTI lege bat, aurreko legealdian pendiente geratu zena, egiteak merezi duen edo ez. Baina puntu horretara heldu aurretik, eta pentsatzen dut egokia dela hori ere aztertzea, utziko didazue berriro ere azpimarratzea lesbiana eta feminista kontzeptuak ez direla txanpon beraren alde biak, baizik eta alde bakarra duen txanponaren alde. Ezinezkoa da, nire ustez, bata bestearengandik bereiztea.

Indarkeria sistemikoari aurre egingo dioten eta egiturazko bazterketarekin amaituko duten politika publikoen inguruan eztabaidatzeko, abiapuntutzat hartu beharko dugu marko politiko bat non bizitzaren ekoizpena eta ugalketa guztiz bestelako parametroen arabera egin beharko diren. Hori da bidea, nire ustez. Eta hori da bidea ezkerreko lesbiana feminista izateaz aparte, gizartea errotik eraldatzeko irrikitan bizi naizelako. Pentsatzen dut gainean daukagun sistema kapitalista eta heteropatriarkal hau hiltzailea ez ezik, zapaltzailea, harrapakaria eta emakumeon bizimodua okerrerako bidean jarri nahian dabilela, eta lesbianon bizimodua are okerrerako bidean. Horregatik suntsitu behar dugu, gure bizimodua eraldatzeko. Atzo aipatu genuen, baita ere, ezingo dela lesbianon bizimodua hobetzeko ahaleginik egikaritu, aurretik ez badugu bizitzaren egungo ekoizpena eta ugalketa ahalbidetzen dituen sistema ekonomikoaren inguruan gogoeta sakoena egiten. Polemikari bide egitearren, esango nuke ezin dela lesbianon



bizimodua hobetzearen aldeko borrokarik garatu, aldi berean zaborren kudeaketarako errauskailu baten premia defenditzen bada, abiadura handiko trenaren proiektua babesten bada, edota zerga politika aurrerakoi eta justuago bat lortze aldera egindako ahalegin guztiak zapuzten badira.

MIREIA BIOSCA: Erabat ados nago Nataliak esan berri duenarekin. Egia da gu guztion borroka lesbiana feministen borroka dela baina, nire kasuan bederen, Izquierda Unidako kide naizen aldetik, oso argi daukat nire ildo politikoaren beste oinarri ezinbesteko bat kapitalismoaren kontrako borroka dena. Baten bat gobernu ardurak baditu, esaterako, eta eskubide sozialen murrizketa ekarriko duten TTIP edo CETA bezalako merkatal hitzarmenak babesten baditu, argi dago agintari horrek ez duela emakume lesbianen mesedetan pentsaturiko politikarik defenditzen. Ez behintzat, Amaia Perez Orozcoren hitzetan, bizitzeak merezi duen bizimodu baten aldeko politikarik. Ezinezkoa da bizitzeak merezi duen bizimodu bat edukitzea, baldin eta ama izanik ezin baditut nere seme-alabak eskola publikora eraman murrizketak medio hezkuntza sistemak pot egin duelako; edo gaixorik dagoen paperik gabeko etorkina banaiz, eta lesbiana, agiri barik ez badut sendatu nazaten lortuko. Garrantzitsua da aitortzea emakume lesbianen mesedetan egindako edozein egitasmo publiko, feminista beharko duela izan, arestian esan dugunagatik, lesbianak, danak, emakume ere bagarelako, baina era berean egitasmoak kutsu antikapitalista ere izan beharko duela eta niretzat, baita ere, Giza Eskubideetan oinarrituta izan beharko duela. Izan ere, pertsona orori dagozkio eskubide horiek, pertsona izate hutsagatik, eta ez da bidezkoa inori eskubiderik ukatzea, bizi duen egoera legala medio. Alderdi politikoak ahoa bete hortz geratzen gara Demokrazia lau urtetik behin botoa ematea baino askoz gehiago dela errepikatzen dugunean. Baina Demokrazia bada ere herri bat izatea, edo Estatu bat, edo nazioen herrialde bat non herritar guzti-guztiek bizimodu duin bat izango duten bermatuta. Bizimodu duina erdietsi nahi badugu ezingo dugu bizitza zapuztuko duen, zaintza galaraziko duen edo emakumeen kontrakoa izango diren hitzarmenen inguruko legerik egin. Lesbianontzako ez da bizitza duinik izango, lan erreforma atzerakoiak, misoginoak eta homofoboak egikaritzen diren bitartean. Lan bera eginagatik emakumeok gizonak baino gutxiago irabazten badugu, lantokian lesbiana naizela esateagatik ugazabak kanporatuko banau edo, lana ez galtzeko berriro armairuan ezkutatu beharko badut neure burua, jai daukagu. Beharrezkoa da hori guztia kontutan hartzea politika publikoak garatzerakoan.

Egia da alderdi guztiak ez datozela bat uste horiekin, alderdion artean ezberdintasunak izan badirelako. Horregatik uste dut garrantzitsua dela oso, politikan gabiltzanok egitasmo lesbianoak bultzatzea, feministak izango diren egitasmoak, jakina, baina baita ere gu guztiak zapalduta, betiko menperatuta, bakarrik eta antolatu barik nahi gaituen



sistema kapitalistaren kontrakoak izango direnak. Ondo daki kapitalak zapalduta bizi garenok elkartu eta antolatzen garenean, bereak egin duela.

MIREN URRESTI: Solaskideek aipatu dutenaren haritik, jakina pentsamoldeetan ezberdintasunak badituguna. Gure artean bizi-bizi dago aniztasuna, gizartea ulertzeko modu ezberdinak dauzkagu, baina uste dut elkartzen gaituela pertsonak gure jardunaren ardatz bezala hartzeko erabakiak, benetan jendearen beharrezanean erantzuteko guztiok daukagun gogoia. Dudarik ez dut horixe dela hemen gauden guztiok egiten duguna. Bakoitza bere xehetasun eta bere gutxigora beherekin, baina beste horretan, uste dut, denak bat gatozela.

Nik zio zehatzei helduko nieke. Lesbianen mesedetarako marrazturiko politika publikoei dagokienez, hainbat gauza aipatu dira dagoeneko eta uste dut beharrezkoa dela horiek garatzeko zer egin behar dugun zehazten hastea. Iruditzen zait, batetik, bidezkoa dela herri honetan –eta herri aipatzen dudan guztietan Euskal Herriaz ari naiz, jakina- izan ditugun lorpen guztiak aipatzea: gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortze aldera izandako lorpenak, eta baita aniztaun sexual eta genero nortasuna babeste eta sustatze adera izan direnak ere. Lorpen instituzionaletaz ari naiz, noski. Emakunde aipatu nahiko nuke, esaterako, urte dezente daramatzalako lanean, beste hainbat tokitan sortu berri dituztenean antzeko egiturak. Ildo berean ezin dugu ahaztu Eusko Jaurlaritzak eskoletan eragiteko bultzatutako programa. Hor dira beharrezkoak ALDARTEko kideak eta mirestekoa da Hezkuntzan egindako guztia.

Hori guztia esanda, argi utzi nahi dut halaber lorpen horiek ez direla erdietsi agintariei okurritu zaielako. Horiek guztiak lortu dira bai mugimendu feministak bai LGBT mugimenduek beren eskubideen alde egundoko borroka egin dutelako eta lortu dutelako erakundeetan eta alderdi politikoetan eragitea beraien eginkizunak bete ditzaten. Nik neuk behintzat oso argi daukat alderdi politikoaren eta agintarien betekizuna dela herritar ororen eskubideak bermatzea eta, kasu honetan, emakumeen eta emakume lesbianen eskubideak.

Zelan egin aipatu eskubideak bermatzeko? Gure ustez, eginahalak egin behar dira, esaterako, berdintasunaren aldeko ekimenak baliatuz lesbianak ikusgarri egiteko. Egia da berdintasun plangintza guztietan esaten zaigula emakumeek badutela bestelako sexualitateak bizitzeko eskubidea, baina inon ez da aipatzen, behin ere ez, *lesbiana* berba, eta uste dut behar-beharrezkoa dela hitzez hitz esatea. Euskaraz esaten dugun moduan, *izenak izana du*.



Interesgarria litzateke, baita ere, denboraren erabilpenaz gogoeta egitea. Atzo zerbait aipatu zen emakumeok, eta gure kasuan, emakume lesbianok denboraz egiten dugun erabilpena. Gu inguruan ditugun guztiak babesten eta laguntzen ahalegintzen gara eta denborarik gabe geratzen gara gure desioei, gure premiei edo gure aisialdiari tajuz erantzuteko. Eta emakumeen kontrako indarkeriaz berba egiten dugunean, ezin dugu ahaztu emakume lesbianok pairatzen dugun indarkeria bikoitza, biolentzia misoginoa, batetik, emakume izateagatik, eta berariazko indarkeria sufritzen duguna emakume lesbianak izateagatik. Hori berdintasun egitasmoiei dagokienez, alegia, azpimarratzea eta agertzea eskatzen dut *lesbiana* berba berdintasunaren aldeko jardunbide instituzional guztietan.

Aniztasun sexuala eta genero nortasunaren gaineko jardunbideei dagokienez, bestalde, pentsatzen dut beharrezkoa dela hor ere ikuspegi feminista txertatzea. Ez baita abiapuntu berbera lesbiana batek, edo gay batek edo pertsona transexual batek daukatena. Politika horietan ikuspegi feminista txertatuz, eginbide eraginkorragoak lortuko ditugula komentzituta nago.

EUKENE ARANA: Ados nago erabat Mireia eta Nataliarekin esaten dutenean ezinbestekoa dela gizartea eraldatzea eta gizarte hori lortzeko patriarkatua suntsitu behar dela eta herri berdintzaileago bat eraiki behar dela, non pertsonak begirune osoz hartuak izango diren bezala, ingurumena ere irmoki babestuko den. Jakinik hori lortzea gaitza izango zaigula eta inoiz lortuko bada talde eta mugimendu askoren elkarlana beharrezkoa izango dela, gutxienez mundua gehiago izorratzen segi ez dezaten, uste dut beharrezkoa dela epe laburreko zenbait xede garrantzitsu zehazten hastea. Lehenengoa eta garrantzitsuena, gure burua ikusgarri egitea da. Datozen belaunaldiek ez badute eredu lesbiko garrantzitsurik ezagutzen, emakume lesbianak ez dira agertuko zaintza eta antzeko eremuetatik kanpo, goi mailako eremuetan. Gogoan dut ni neu gazte nintzela, neskak atsegin nitula ohartzen hasi nintzenean, nik ez nuela neure burua beste emakume batekin umeak egiten ikusten, halako eredurik ez baizegoen artean. Ez zitzaidan halakorik okurritzen. Neure burua ikusten nuen umea egiten, baina bakarrik, ez beste emakume batekin. Gaur halako ereduak ohikoak izatea, aurrerapauso izugarria izan da. Garrantzitsua den bezala emakume lesbianok sortutako familia ereduak, direnak direla, ohiko bezala onartuak izatea. Inportantea den bezala erakunde publikoek emakume lesbianak ikusgarri egitea hedabideetan, edo Hezkuntza munduan. Lehen mailako Hezkuntzan maisu edo maistra bati azaldu behar izatea ugalketaz hitz egin behar dutenean ohiko bideez gain, gaur egungo moduetaz ere hitz egin behar dutela, gehiegizkoa da. Une horretan jabetzen baitira ikaslegan dituztela bi amatxo dituzten ikasleak, baina ez dakite hori zelan azaldu gainerako umei. Kezkatzekoa da, benetan.



Eskoletan bada ezkutuko kurrikuluma, nahi gabe bada ere gainerako umeen aurrean bere ikaskideen errealitatea ezkututzen duena. Kezkagarria da eskolan berezkoa baden aniztasun hori haintzat ez hartzea.

Daukagun bigarren erronka, nik uste, gure aurretik borrokatu diren emakume lesbianeizor diegun aitortza da. Bizitzan sufritu dituzten bidegabekeria guztiak, jasan duten mina eta bizi behar izan duten guztia aitortu behar diegu. Aitortzarik gabe ez dugu benetako bakea lortuko. Guk aitortza zor diegu emakume horiei guztiei, haien sufrimenduaren oinordeko delako gu gaur hemen horren lasai egotea, huntaz eta hartaz hitz egiten.

Eta lesbianen mesedetan egindako politika zehatzei buruz hitz egiten dugunean, badugu hor hirugarren erronka bat. Ez baitago halakorik. Ez dago osasungintzan, ez daude ekonomian eta are gutxiago legedietan... eta dauden apurrak hutsalak direlakoan nago, oraindik orain hainbat arazo ditugulako gure seme-alaba ez-biologikoak ofizialki aitortzeko, bai edo bai neska-lagunarekin ezkondu behar dugu oraindik, gureak diren umeak legez gure egiteko adopzio prozeduratik pasa barik. Onartu gabeko politika ugari dagoenez, lasai asko esan dezakegu ez dagoela gaur-gaurkoz gure beharrezaneiz tajuz erantzungo dion inolako politikarik. Egiteke ditugun erronken arteko hirugarren honen barruan, hau guztiau zelan kudeatzen dugun, uste dut Hezkuntzan dagoela benetako aterabidea. Eskolako testu liburu guztiak berraztertu behar ditugu, guztietan sexualitatea askotarikoa dela azaldu dezaten, familia eredu bakarra ez dagoela, eta beraz eredu ezberdinak zeintzuk diren argitu dezaten, maitatzeko modu anitzak agertu daitezzen eta genero nortasuna ere hautazkoa dela esan dezaten. Eta noski, sexu harremanak gauza bat direla eta ugalketa beste bat; eta ugalketa barruan ere, batzutan biologikoa dela eta bestetan, berriz, lagundutakoa. Hori guztia gure gazteek ikasi eta jakin egin behar dute. Modu horretara munduaz ikuspegi zuzenagoa eta errealagoa izango dute.

Bigarren galdera

Zeintzuk gai lehenetsi beharko genituzke, zuon ustez, jardunbide politiko zehatzak garatzerakoan?

MIREN URRESTI: ALDARTEk alderdiori igorritako txostenean hainbat proposamen ageri zaizkigu, gure ustez oso interesgarriak direnak eta haintzat hartu beharko ditugunak. Neurri zehatzak proposatzen zaizkigu hor, ondo marraztuak eta emakume lesbionan bizimodua hobetzeko baliogarriak izan daitezkeenak. Gure ikuspegitik ezinbestekoa da lesbianak ageriko egitea; erakustea toki guztietan gaudela, baita politikagintzan ere, eta ikusgarri egitea aniztasun sexuala eta genero nortasuna. Uste dugu, era berean,



irrotasunez egin behar zaiola aurre bullying lesbofo bezala ezagutzen dugun jardunbide zapaltzaileari, zoritxarrez mutikoez –eta ez neskek- sufritu ohi duten bullyinga aztertzen denean, zokoratuta eta ezkutuan geratzen baita gure kontrako jazarpena. Azkenik, legedian eragiteko premia badela uste dugu, batez ere Lagunduriko Ugalketaren gaineko Legean edo Adopzio Legean. Araudiek haintzat hartu beharko dituzte gure errealitateak, gu garena baztertu gabe.

Uste dugu kanpainak beharrezkoak direla. Egia da hainbat kanpainen kontrako kritikak maiz entzuten direla, ez zaielako epe ertain edo luzean jarraipenik ematen. Gure ustez kanpainak ezin dira data zehatz batera mugatu –maiatzaren 17 edo ekainaren 28-, baizik eta urte osoan garatu beharreko ekimenak izan behar dute. Ustezko heterosexualitate orokorraren kontrako kanpaina iraunkor bat behar dugu, inposatzen zaigun, eta batez ere emakumeoi inposatzen zaigun derrigorrezko heterosexualitatea gainditzeko. Gu gaur hona etorri eta aurpegia eman badugu ez da izan besteak baino ausartagoak garelako. Nahi izan dugulako etorri gara, jakina, baina agintarien eta alderdi politikoen derrigorrezko eginkizuna izan behar du aurpegia eman nahi duen orok aukera eta berme guztiak izatea lesbiana bezala jendaurrean agertu eta baztertua edo zokoratua ez izateko. Lesbiana izatea ez da gai pertsonala, soziala eta politikoa da eta erantzuna ere maila bi horietan eman beharko zai. Arestian aipatu dudan moduan, askotarikoak gara lesbianak. Badira feministak ez direnak edo LGBT mugimenduko ezein taldeko kide izan nahi ez dutenak, eta guk guztien alde egin behar dugu lan eta politika, lesbiana guzti-guztien mesedetan.

ALDARTEk egindako proposamenetatik bat nabarmendu nahi dut, laguntza-zerbitzuei dagokiona, hain zuzen. Bat nator txostenaren egileekin esaten dutenean sistema emakume heterosexualen beharrezko erantzuteko egina dagoela eta hortaz, gure premietara egokitzeko premia badagoela. Eta hor bezala, sistema guztietan: Hezkuntzan, lan munduan, juridikoan, eta abar. Gure errealitate eta beharrezko erantzutea egokitu beharko dira lege eta araudi guztiak.

Elkarlanaren premia ere azpimarratu nahi dut hemen, bai mugimendu feministarekin, bai aniztasun sexuala eta genero nortasunaren aldeko mugimenduekin egin beharreko elkarlana, alegia. Izango dira, noski, bestelako uneak, baina bidea elkarrekin egiteko ere tarte bat hartu beharko dugu. Giza Eskubideak ditugu hizpide eta horretan guztiok elkartu beharko dugu, eta estrategia komunak prestatu. Azken batean, gizarte justu eta demokratikoa lortzea dugu guztiok xede, zeinean pertsonak agintarien jardunaren ardatz nagusi izango diren eta haien premiei erantzutea erakunde publikoen zeregin nagusia. Gure kasuan emakume lesbianen premiei erantzutea, noski.



EUKENE ARANA: ALDARTEk jardunaldiotako galderak igorri zizkigunean, hor islatzen ziren Podemos alderdiaren asmo politiko nagusiak. Dena den, proposamen guztiak ondo aztertu ondoren, uste dut badirela batzuk oso erraz garatu daitezkeenak, horretarako borondatea egonez gero, jakina. Gakoa legea egin eta bertan jasotako araudiak egikaritzeko dirua jartzea da. Erraz egin daiteke hori. Baina badira beste hainbat proposamen zer pentsatu eman didatenak. Alderdiei proposatutako neurrien artean, esaterako, zera eskatzen zaie: *erakunde politikoaren baitan lesbianismoaren ikusgarritasun sozial eta publikoa sustatzea, lesbianak izaki politikan dabilzan emakumeek euren izaera agerikoa egin dezaten baldintza egokiak sortuz*. Hala dio batek eta besteak, berriz: *alderdi politikoek konpromisoa hartu dezaten aniztasun sexualaren eta genero nortasunen gaineko gaiak lantzen ari diren bitartean, hainbat urtez beraien irudi publikoa emakume lesbianak izan daitezen*. Hori irakurri eta zer galdetzen diot neure buruari, telebistaz telebista ibili beharko ote dudan neu *Mototsadunaren* atzetik. *Emakume politikoaren ikusgarritasun soziala* esaten dugu. Ni jendaurrean nagoenean ez dut ezkututzen lesbiana naizenik. Horixe adierazten dut emazteaz edo seme-alabez hitz egiten dudan bakoitzean, baina beti-beti neure burua lesbianatzat agertzen ibili behar izatearekin ez nago konforme. Eta ez da beldur naizelako edo barneratutako lesbofobiak jota nagoelako, ezta hurrik eman ere. Nik ez dut alderdiko *Lesbiana* izan nahi. Ez dut nahi ni horregatik bakarrik ezagutua eta onartua izatea. Agerikoa izan arren, beti banderarekin joan behar izatea astunegia da eta ni ez naiz hori bakarrik. Oreka lortzea, proposamen horrekin, zaila da gero. Zaila den bezala ezein alderdik onartzea bere irudi publikoa emakume lesbianak izan behar dutela, halabeharrez. Emakume guztientzat ez da erraza izaten beraien lesbianismoa ageriko egitea eta nik neuk, aitortzen dut, naizen bezain gardena izaki, badudala neure intimitate xumea zeinaren arabera ez zait sudur puntan jartzen une eta toki guztietan lesbiana naizela esaten ibiltzea. Inor bere burua ageriko egitera behartzea hain da erabaki politikoa eta hain da personala, hainbatek atzera egitea ulergarri gerta daitekeela. Ulertzen dut proposamena egiten dutenen xedea eta asmoa, jakina, nik ere oso argi baitaukat erreferenteak behar-beharrezkoak direla eta, adibidez, mahai honetan gaudenak hemen izatea eta aurpegia ematea oso garrantzitsua dela.

Gustatuko litzaidake entzuten zaudeten emakume guztiok zuon iritzia ematea honetaz guztiaz. Esaiguzue alderdietan gabiltzanoi zelan egin dezakegun alderdi barruan auzia agerian uzteko. Proposamena norberaren bizimoduan zehaztea, gaitza egiten zait. Ni komentzituta nago Podemos-Euskadi barruan badirela, gutxienez, berrehun bat emakume lesbianak, baina hiru gara aurpegia emateko kapazak garenak. Egoera iraultzea zaila dela uste dut. Eta zaila da baita erraztasunak eman, aukerak sortu eta noberaren burua libreki adierazteko eremuak sustatuta ere. Horregatik eskatzen dizuet



alderdietan ez zaudetenoi lagunduiguzuela alderdi barruan auzia zelan kudeatu behar dugun asmatzen. Neroni kosta egiten zait, ez bada nitaz hitz egiten dudala. Pasa den urtean ikusgarritasunaren aldeko kanpaina egin zuen alderdiak, eta mingarria izan zen neu izan nintzelako karteletan agertu zen bakararra. ALDARTEK egindako proposamen bi horiek garatzeko oso gaitzak iruditu zaizkit.

NATALIA GARDEAZABAL: Nik apur bat gehiago korapilatuko dut eztabaida. Esango nuke maila ezberdinak ditugula hizpide. Ni ezin naiteke lasai geratu lege batekin edo egitura juridiko zera batekin zeinetan... Haratago joango naiz: Ulertzen badugu lesbianismoa sexu abagune edo aukera hutsa dela, nolabait esatearren, berau ezaugarri pertsonala litzateke, apolitikoa. Nire aburuz hori ez da lesbianismoa. Ez da norberaren baldintza, sorkuntza baizik. Lesbianismoa, niretzako, sorkuntza politikoa da, heterosexualitatea edo arrazakeria sorkuntza diren neurri berebean. Feministok Simone de Beauvoir zenaren hitzetan ikasi genuen gu emakume ere ez ginela. Monique Wittig etorri zitzaigun gero, uste hori biribiltzea esan zigunean lesbianak ezin ginela emakume kategorian sartu. Neri bost axola egin ginen, jaio ginen edo eskubiderik ba ote dudan nire-nirea dudan izakera honengatik. Bost niri. Nik sistema heteropatriarkalaren birsorkuntza ahalabidetzen duten bitarteko guztiak suntsitu nahi ditut, eta horretaz eztabaidatu nahi dut. Neri bost axola nor norekin oheratzen den. Pertsona orori dagozkigun eskubideak ezagun ditugu. Guk izan behar ditugu, zer? Altsasuko gazte batek dituen eskubide berdinak? Sakabanaketa sufritzen duen preso heterosexual batek dituen eskubideak? Noren eskubideak nahi ditugu? Ijitua den lesbiana batenak? Espainiako gizon homosexual aberats batenak? Nortasun horiek guztiak mahai gainean jartzen ditugunean bektore mordoa gurutzatzen zaizkigu. Ricky Martin abeslariari bere bektore homosexualak, zenbateko kalte egiten dio?

Ikusgarritasuna dugu hizpide. Jakina, nik ez dut esan nahi legeak eta araudiak behar ez ditugunik. Ez horixe. Hor daukagu Kataluniako Legea, adibidez. Europa mailako legerik aurreratuen da, dudarik gabe, bai edukietan baina baita legea egiteko prozeduragatik eta onartu ahal izateko jazotako guztiagatik ere. Jakina hortik zer ikasi dezente daukaguna, batez ere politikagintzan gabiltzan guztiok. Aurreko legealdian eskegita geratu zitzaigun legea garatzeko prozedura. Aurrekari bat ere badugu, Transexualitatearen Legea, 2012an onartu zena eta zer hobetu baduena. Legea ondo dago, bai, baina ez osoki ondo. Nik ez diot legeak beharrezkoak ez direnik. Baina beldur naiz ez ote garen lege hutsarekin ase geratuko. Gu erabat ados gaude ALDARTEK alderdioi proposatu dizkigun neurriekin baina, adibide xume bat jarri nahi dut ditudan dudak argizeko: eskatzen zaigunean *sexuaren gaineko zalantzak eragiten dituzten izenak ezabatzea*, ez daukat oso argi. Printzipioz hemen gauden guztiok bat gatoz



proposamenarekin, asmo demokratiko hutsengatik, noski. Baina badator Euskaltzaindia eta den-dena hankaz gora jartzen digu. Euskarak, dakizuenez, ez du generorik eta ezaugarri hori pertsonen izenekin ere gertatzen da. Horregatik guztiok ezagutuko dugu beharbada, Amets izena duen mutikoren bat, eta neskaren bat ere bai. Orain, Euskaltzaindiak *dixit*, ezin da. Adibide bat baino ez da hau bizi ditugun distortsioen ingurukoa, egunero-egunero aurkitzen ditugun kontraesan eta erritmo aldrebesen ingurukoa, hain zuzen.

Nik 25 urte bete berri ditut irakaskuntzan. Hau beste adibide bat duzue. Oker ez banago koheziketaren gaineko lehenengo plana orain 20 bat urte egin genuen gure institutuan. Orain gutxi plan berri bat aurkeztu didate eta, zoritxarrez, orain hamarkada bi guk egindako hura askoz ere aurreratuago zegoen hainbat eta hainbat gaietan. Urte hauetan guztietan hemen gauden guztiok asko ikasi dugu, bizipen ugari daukagu liburuek baino irakaspenera aberatsagoak suertatu zaizkigunak, ezta? Nik badakit adostasuna lortze aldera, askotan agendak bateratu behar direla, erritmoak moteldu eta halakoak. Baina, benetan diotsuet, ez dut uste halako gai serioetan amore eman behar dugunik. Ez feministak garen emakumeok, eta are gutxiago lesbiana feministak garenok. Uste dut jendarteari edo alderdi politikoei dagokiela orain gurekin eskuzabal jokatzeari.

Hasi berria den legegintzaldirako lan dezente daukagu egiteko. Ikusita Legebiltzarreko indarrak zenbaterainokoak diren, uste dut baldintza ezin hobekak ditugula gauzak egiten hasteko. Bide luzea daukagu aurretik eta gakoa lehenago egindako hutsak ez errepikatzea litzateke.

EUKENE ARANA: Egia da Emakundek eta antzeko erakundeek azterketa eta diagnosi ezin ederragoak eginak dituztela. Zein da arazoa? Lan horiek ez dutela gero jarraipenik. Guztiok ezagutzen dugu Arartekoak Irungo Alardearen inguruan egin berri duen txostena. Bere idatzian argi utzi du ezin dela halako bazterketarik onartu. Oso ondo dago txostenean esaten den guztia. Eta zer, gero ez badago legerik hori guztia egikaritzeko? Beste horrenbeste esan dezakegu Emakunderi buruz. Lanabes ezin egokiagoa dela ukatuko ez badut ere, non dira gero bere lana errealitate bihurtuko duten neurriak? Orain gutxi Legebiltzarrean familiei buruzko azterketa soziologiko bat heldu zitzaidan. Atentzioa gauza batek deitu zidan: familiak zituen hizpide baina orrialde guzti-guztietan ikur bakarra agertzen zen, familia heterosexualak ordezkatzeko dituen ikurra, alegia. Ezin dugu onartu gaur halako azterketa bat egitea eta eredu bakarraren ikurra agertzea. Lotsagarria ere bada 2017 urtean halakorik gertatzea. Batez ere horrek islatzen duelako zein baztertzaila eta mugatzaila izan daitekeen azterketaren beraren sakoneko edukia.



MIREIA BIOSCA: Ni etxetik kanpo jokutzen dudanez, ezer gutxi esan dezaket Eusko Legebiltzarrean egiten denaz. Hori bai, hitza ematen dizuet Estatu mailako Ezkerreko Unidan LGBTI gaiak lantzen dituen batzordetik ziria sartuko diegula Euskadiko gure kideei ALDARTEk egindako proposamenak haintzat hartu eta bete ditzaten. Nik Valentziar hitz egingo dizuet, bertakoa baita ongien ezagutzen dudana errealitatea. Ez dakit zuek oso ondo edo oso gaizki zaudeten, baina guk ez dugu ezer eduki 25 urtetan, PP agintean izan dugun bitartean. Orain aurrerapen batzuk izan ditugu, onartu behar dugun arren aurrerapen nahiko sinbolikoak izan direla guztiak: Hortzadarra ipini dute Udaletxeko balkoian; erasoen kontrako elkarretaratzeak egiten dituzte agintariak; kaleren bati izena aldatu zaio. Itxurakeria, neurri batean. Uste dut egokiagoa litzatekeela zapalkuntzaren oinarriak ikutuko bageitu.

Ni ere bat nator ikusgarritasuna dela daukagun lan ildorik garrantzitsuena. Horretan ados gaude gu guztiok. Adrian Chrisek esaten zuen moduan, hitza boterea den munduan, eta gizonak hori horrela dela erakutsi digute hitza hartu duten guztietan, hitza kentzen dizutenean zure kontra indarkeria erabiltzen ari dira. Horixe gertatzen zaigu guri, emakume lesbiano. Feminismotik esan genuen bere garaian, emakumeen hilketak egiturazko indarkeriaren muturra besterik ez zirela. Eta antzeko gertatzen zaigu, gutxi gora behera, emakume lesbiano. Sufritu dezakegun edozein eraso fisiko zapalkuntza orokorraren isla baino ez da, ikusgarritasun eza biolentzia horren beste isla den modu berean.

Valentziar gauza zehatzak egin ditugu. Esaterako, iazko Fallak iragartzeko Udalak egindako propagandan ez ziren, garai batean bezala, Falletako gizona eta emakumea agertzen. Oraingoan, zeharka izan bazen ere, aniztasun sexuala adierazten zuten irudiak erabili ziren. Ez dugu agerpen publikorik nahi ekainaren 28an edo maiatzaren 17an. Orduan ere bai, noski, baina agintariak edozein agerraldi egiten dutela ere, gizartean aurkitu daitekeen aniztasuna islatzen saiatu behar direla uste dut.

Podemoseko kideak egindako galderari erantzunez, alegia, zelan egin dezakegun alderdien barruan gai hauek tajuz jorratzeko, inor ezertara behartu barik, esango nuke niretzat lesbiana izatea nire nortasunaren ezaugarri nabarmenetako bat dela eta ni bai IUko lesbiana naizena, eta oso harro gainera. Baina egia da garai batean feminismoarekin gertatu zitzaigun modu berean, hau da, alderdian ekonomiaz ari ginela ekonomiaren atalean ez zela feminismoa inondik inora ageri. Feminismoa azken aurreko orrialdean aipatzen zen, eta da, eta azkenekoan berriz LGBT gaiak. Beti gertatzen zaigu berdin. Argi dago hori gertatzen denean zu ez zarela hor barruan gustura sentitzen. Baina alderdian lortzen duzunean ekonomia lantzen ari direnean zaintzaz ere hitz egitea, orduan bai kide eta partaide sentitzen zara, dudarik gabe.



Azken batean emakume lesbianek urrats bat egin dezaten alderdiaren barruan, alderdiak berak aldatu behar ditu bere moduak eta bere manerak. Hasiera batean, beharbada, batek, edo bik, edo hiruk besterik ez dute pausoa emango. IUn, esate baterako, 1986 urteaz geroztik daukagu LGBT Batzordea, baina 2011 urtera arte ez genuen izan lesbiana bat, ni neu, batzordeko buru. Ez dut sinisten lehenago emakume lesbianik ez zegoenik batzordearen barruan. Alde biek dute erantzukizuna: guk pausoa emateko ausardia batu behar dugun emakumeok, baina gurekin batera alderdiak ere egiturak egokitu beharko ditu, eta garai batean emakumeen mesedetan diskriminazio positiboa eskatu genuen bezala, oraingoan agian, lesbianon mesedetan eskatu beharko dugu. Garrantzitsua da emakumeoi aukerak eskaintzea. Bestela gizonak hartuko dute guztia. Eta maritxuak maritxu izango dira, nahi duten guztia ulertuko dute, baina ezeren gainetik gizon dira eta gizonari ustez dagozkion pribilegioak beretzat hartuko dituzte.

Ikusgarritasuna da gaietako bat eta bestea, berriz, Hezkuntza. Ezin izango dugu sistema hau aldatu, ez badugu aldez aurretik Hezkuntza aldatzen. Aniztasunean oinarrituko den Hezkuntza behar dugu, jendartean eta bizitzaren alor guztietan dagoen askotarikotasun hori jasoko duena. Ez da nahikoa horren inguruko asignatura bat izatea. Aspaldi, Herritartasunaren aldeko Hezkuntza indarrean sartu zutenean ni neu poztu egin nintzen. Gerora ikusi dugu hura ez zela nahikoa izan. Lesbianak bizitzaren alor guztietan gaude eta ezinbestekoa da Hezkuntzaren asignatura guztietan agertzea, bai emakumeak eta baita emakume lesbianak. Hori lortzeko ezinbestekoa izango da kurrikulumaren aldaketa ahalbidetuko duen legea onartzea eta hori egin, egin daiteke.